




uk

48. zenbakia / 2003 irailak 20

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

CURSO 2003-04 IKASTURTEA



getxoko udal euskaltegia

Matricúlate en **S** hasta el 23ra arte **SEPTIEMBRE**

todos los niveles

LOPE DE VEGA 12/ TFNOAK: 944646299 - 944646502/ ROMO

«Jaiki zen nagia sua piztera eta ezarri zuen etxea erretzera» Herrikoia

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Marea biziak. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Berta Garcia. Leihatila. Josu Esnaola. Photoshop, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Geroa Ikastolako palmondoa.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Serantes, gure zaindaria. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Iñaki Perurena. Esti Ezkerra.
28. ERREPORTAJEA. Aisialdia herriak kanpora. Unai Brea.

KULTURA ETA AISIA

30. FOTOGRAFIA. Iker Elorriagaren argazkiak.
34. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Filmak euskaraz, noizko?
35. MUSIKA. Udako kantak eta diskoen erreseinak.
36. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Irakurzaleen Txokoa.
37. KOMUNIKAZIOA. Getxo irratia.
38. NATURA. Apoa eta argi-kutsadura.
39. ELKARRIZKETA. Arantxa lurre, Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria.
40. OSASUNA. Oporrak amaiztearen depresioa eta erredurak.
41. JANTZI. Loreak Mendian, Donostiatik datorren moda alaia. Jon Urresti.
42. SAREAN. Internet, Iker Merchán-en eskutik.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Trino Azkoitiari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
46. AKABUKO PUNTE. Gramatika apur bat Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Barrikako Itxas-gane jatetxean.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako Arraun Taldea, 1971. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Xabier Saldias. Unai Brea.

* Azaleko argazkia: Josu Igartua



26 Iñaki Perurena

Berbetan

Hurrengo egunean jaikitako arrazoiak edukitzea, horiek bakarrik kezkatzen duela esan digu Leitzako indartsuak. Hori eta askoz ere gehiago kontatu digu.



39 Arantxa lurre




30 Iker Elorriagaren argazkiak



44 Trino Azkoitia



41 Loreak Mendian



54 Xabier Saldias

Udazkenean ere euskarari heldu!

euskara

¥Maila guztiak ordutegi desberdinetan

¥EGA larunbat goizetan

¥Plentzian ere bagaude!



Algortako Etorbidea 104 zbk
48990 Algorta - GETXO
Tif: 94 460 66 71

e-mail: j.a.agirre@euskalnet.net

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48900 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunatze Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Menbaca
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iñaki Aguirre, Edurne Ugarte, Xabier Buerxue, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mixelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799
 Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

ITXASGANE Etxea / Karitategia 1
 94 491 43 57 / 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuak dirulaguntza jaso du

BERANGOKO Udala

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

YBRLA

Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Naufragoaren garraxia

Oporretako buelta jaien gaineko zenbaki berezi batez "ospatu" genuen, baina orain bai, esan daiteke UK normaltasunera itzuli dela, ohiko atalakaz, ohiko itxuragaz eta ohiko gaiakaz. Uda aurreko azken zenbakian aurton hasitako bide berriaz gogoeta egin beharrea geundela eta aldaketaren bat egon zitekeela iragarri genizuen. Bada, hala izan da. UKk lau orrialde gutxiago dauzka, eta horrek atalen bat edo beste desagertzea ekarri du. Bestelako aldaketa batzuk ere egon dira, zuentzat ezkutuagokoak, baina aldizkariaren kalitatean igarriko dituzuenak, edo asmo horregaz gabiltza.

Albiste txarrak dakartzagu ordea. Behin baino gehiagotan esan dizuegu zuen laguntza, eta batez ere zuen diru laguntza, behar dugula. Oraingoan, ordea, gauzak oso txarto daudela esan beharrea gaude; hau ez da, dagoeneko, eskari hutsa, urperatzearen egon daitekeen naufrago baten garraxia baizik. Ez da txantxa. Bizarra Lepoan abiatu zenetik, urterik urte aztertu dugu aldizkariak aurrera jarraitzea posible zen ala ez, jasotzea espero genuen dirulaguntzen arabera. Orain arte, bistan da, beti eduki dugu jarraitzeko aukera, baina baliteke 2004. urtea gaindiezineko mugaria izatea guretzat. Proiektu hau arriskuan dago, inoiz egon bada. Hazi egin gara eta hazten jarraitu gura dugu, baina ez da gauza bera gertatzen gure baliabideakaz. Horregatik, elkartasunezko deia egiten dizuegu guk bezala Uribe Kostan UK bezalako euskarazko komunikabide bat egon behar dela uste duzuenoi.

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritzia, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak biartzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> berria




PHOTO: ZALABERRA - ZUBIKO / IRANLUR

Lehorrera behartuak / Gero eta arantzale guxiago dago, baita gurean ere. Laster ez da bakar bat ere egongo, eta ordutan, zertarako beharko dugu itsasoa? Pentasamendu hori ekarri digu gogora goian ikus dezakezuen argazkiak, berez garai honetan hain bortitzak diren marea bizien berri ekartzea beste helbururik ez zuen argazkiak. Era auskalo, norik daki marea biziak zain daukagunaren abisua besterik ez ere diren? / Argazkia: Asier Menbaca

Leihatila

> Josu Esnaola

Katalunian

Hilabete oporretan pasa ostean kostara egiten da, berriro ere, lehengo martxa hartzea. Niri, behintzat, halaxe gertatzen zait, baita leihatilatxo hau idazteko orduan ere. Horregatik, besterik bururatu ez eta oporren gainean arituko naiz. Bai, badakit estatuak eta kapitalak ez dutela oporrik hartzen, baina gizaki arruntok, buru osasuna gorde nahi badugu, eguneroko gurpil zoro bezain zanpatzailea eten beharra daukagu, produzitzen jarraitzeko bada ere.

Horrela bada, aurten Pirinioetarako bidea hartu dugu. Bertan kataluniar askotxorekin berba egiteko aukera izan dugu, eta harrizta entzun euren hizkuntzaren egoeraz egiten zituzten gogoetak, lan handia ei daukate etorkizuneari aurretik katalanak bizirik iraungo badu. Eta gu euskararen geroa ziurtatuta dagoelakoan, a ze inozoak!

Han jakin genuen Bartzelona Futbol Taldeak, aurrerantzean, fitxatzen dituen jokalarien kontratuan Kataluniako kulturaren alde egiteko eta katalana ikasteko baldintza sartuko duela. Gurean, aldiz, euskarak ez daukala inolako lehentasunik, ezta euskal hiztunontzat ere. Garrantzitsua Athleticek irabaztea da, gazteleeraz edo euskaraz egitearena gutxienekoa da... Hori bai, "Euskal" Herriko jokalariekin.

Poetak esan zuen legez: ez dugu ikusten, ez dugu ikasten, ikusiko ote dugu noizbait, noizbait ikasiko? 4

Iritzia

Eskolara itzultzeko garaia dira. Askorentzat, umeen motxilak beteko dituzten materialetan dirutzak xahutzeak ere bai. Horren gainean, iritzia eskatu diogu URKOA kontsumitzaileen elkarteari.

Eskolara itzultzea

Ikasturtero, etxeko txikienak eskolara itzultzeaz batera, gorriak ikusten ditugure ekonomiak. Nebarreba nagusien gauzak ondorengoek erabil ditzaten gordetzea bezalako ohiturak ahaztuta daude nonbait, eta merkatuaren eragina dela eta, testuliburua aldi bakarrean erabili eta gero bota beharreko beste produktu bat bihurtu da. Horregatik, familiak, berrikuntza pedagogikorako taldeekin eta giza-elkarteekin batera, duela hamarkada bat baino gehiagotik dabilta arlo horretan aurrerakuntzak eskatzen, esaterako liburuaren erabileran bestelako formulak erabiltzea. Alegia, liburuak behin eta berriz erabili ahal izatea eskatzen, bai eta adingabekoei elkarlaneko baloreak garatzen laguntzea, eta gauzak elkarrekin erabiltzen jakitea bezalako balore ez-kontsumistak indartzea;

baina edozelan ere, liburu horiek zein oinarriko hezkuntza –legeak derrigorrezko hezkuntza legez definitzen duena– garatzeko behar diren gainerako materialak dohainekoak izan beharra aldarrikatzen dute, irakastea bera dohainekotzat hartzen den bezala.

Gizartearen esparru zabalek daukaten helburu hori antzinatek dator, eta Europako herrialde gehienetan (Portugalen eta Irlandan izan ezik) topa dezakegu horren adibiderik. Aipatu herrialde bi horietan, gobernuak hartu dute beren gain liburu horien gastua, ikasleentzat dohainik izan daitezkeen, edo ikastetxeak berak uzten du liburuak maileguan, hura txarto zainduz gero isun bat ezarriz. Europan, orohar, arlo hau modu arrazionalagoan jorratzen den arren –eta ez soilik diru publikoz diharduten ikastetxeetan–,

Estatu espainiarrean eta Euskal Herriaren alde honetan egitasmoak ez bide du arrakastarik lortu. Duela pare bat urte Aznarren gobernuak liburuak liberalizatzeari aldeko hainbat neurri ezarri zituen; baina neurriok, argitaratzaile, liburu-sailtzaile eta azalera handiko merkatalguneen arteko liskarrak pizteaz gain, ez zituen familiak ase. Agerian geratu zen deskontu politika hura makillaje hutsa besterik ez zela, dohainekotasuneranzko benetako aurrerapausurik eza estaltzeko.

Hainbat gobernuak, udal mailakoek zein autonomia izeneko horietakoek (gutxi hala ere) –eta dagokien eskuduntza-esparruaren barruan–, bere egin dituzte hainbat ekimen, testuliburuak eta material kurrikularra erabiltzea doan izan dadin (beti ere, maileguan hartzen dena, hondatuz gero, ordezkatu behar delarik). Zalantzarik gabe, giza –eta hezkuntza– ekimen aurreratu eta merituzkoak dira. Nafarroan eta EAEn jakiteke dago oraindik derrigorrezko hezkuntza eskaintzen duten ikastetxei baliabide gehiago emango ote zaien, eurek kudeatu ahal izan dezaten derrigorrezko material hori, testuliburua behingoz guztion kultur-ondare gisa erabil dadin. 4

Berta Garcia (Uribe Kostako Kontsumitzaileen Alkartea, URKOA)

«Portugalen eta Irlandan gobernuak hartu dute bere gain testu liburuaren gastua, ikasleentzat dohainik izan datezen»

photoshop > Askatasunaren estatua Areetan



Argazkia & manipulazioa: Asier Mentxaka

[[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora* beti / GEROA IKASTOLA 1956-2003**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Talde ederra elkartu zen Portu Zaharrean abuztuaren 12an (Argazkia: Kepa Urkiza)

begizorrotz > “betiko” laguntaldean topaketa Portu Zaharrean

Erretratuan ikus daitekeen lagun talde ederrak egun berezia antolatu zuen Portu Zaharreko jaietan. Esan digutenez, “Portu Zaharreko jaiak, jatorriz, abuztuaren 11n hasten ziren. Orain, ordea, derrigorrez hartu behar dute asteburua, eta horregatik aurtengo jaietan Marmitako Eguna 10ean, San Lorentzo egunean, izan zen”. Eta San Lorentzo eguna berezia denez argazkian dauden edadeko jendearentzat, “40-50 urte ingurukoontzat”, aspalditik Portu Zaharreko jaietan dabilzanean eguna antolatzea erabaki zuten, bide batez marmitakoa ere prestatuz egun horretan (12an hain zuzen). Ez zen txarto joan, 107 lagun elkartu ziren eta. m

bazen > Algortako kasinoa

1879. urteko abuztuaren 3an zabaldu zen Algortako Kasinoa. Urte bi lehenago, Algortako dirudunek bilera egin zuten Udaletxean, Carlos M^a Zabalak “Historia de Guecho” liburuan kontatzen digunez, Kasino Algortarra izena edukiko zuen aisialdirako gune bat sortzeaz berba egiteko. 1878an solo bat erosi zuten gune hori non eraiki edukiteko, eta 1879an, esan bezala, Kasinoak bere ibilbide luzeari ekin zion. Hasieran, aberatsak baino ezin ziren bertara joan, Ameriketara dirutza ederrak eskuratutakoek batez ere. 1885an, ordea, kuota merketu zuten, herritar xehegoek Kasinoaz gozatzeko aukera eduki zezaten.

Gaur egun agure kartajoko-zalez beteta egoten den lehen solairuko areto nagusiak pianoa eta billarra zeuzkan garai haietan. Erdi-erdian, berriz, mahai bat, egunkari eta aldizkariz betea. Hasierako urte haietan, dantzaldiak ere antolatzen zituzten bertan. Orain etxaurrea konpontzen dabilza, adinak utzitako aztarnak ezabatu gurean edo, eta baliteke zuek hau irakurri orduko edertze-lanak amaituta egotea. m

Algortako Kasinoa 1880. urtean



datua > animalion biziraupena



Dortoka da gehien bizi den animalia

Zenbait espezieren biziraupena

- Dortoka300 urte
- Belatza160 urte
- Loroa80-116 urte
- Gizakia80-100 urte
- Elefantea80 urte
- Balea25 urte
- Katua14-20 urte
- Marraskiloa6-8 urte
- Sagua.....2-3 urte
- Armiarma1-2 urte
- Erlamandoa.....4-5 hilabete
- Zorria27-46 egun

Iturria: Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa

Gizakion bizi-itxaropena gero eta handiagoa da, medikuntzaren aurrerapenei esker batez ere. Gaur egun, 80 urte inguruan ezar daiteke itxaropen hori, baina gorabeherak daude; esaterako, Afrikako herrialde pobreetan bizi-itxaropena ez da Suedian bezain handia.

Dena dela, asko falta zaigu dortokaren mailara ailegatzeko. Berau da munduko animaliarik “zaharrena”, 300 urteko bizi-itxaropenagaz. Sailkapeneko bigarren lekuan, baina askoz apalago, belatza dago (160 urte). Brontzezko domina, gizakiagaz lehia gogorrean, zeini eta loroari dagokio. Beste muturrean zorria aurki dezakegu; hainbeste izorratzen gaituen animaliatxo horri hilabete bakarra egokitu zaio. Nahikoa izango ete du egin beharreko guztiak egiteko? m

kale izendegia > Amann



José Ysaac Amann polifazetiko

Bilbon jaio eta hil zen (1851n eta 1925ean, hurrenez hurren) Neguri aldean kale bat eskainita daukan José Ysaac Amann eta Bulfi marrazkilaria, mediku eta arkitektoa. Biolin-jole trebea ere bazen, eta, musika zaletazunak bultzatuta, Elkarte Filarmonikoko kide egin zen; han, “merituzko kide” titulua jaso zuen 22 urteaz. Bestalde, Amannek San Fernando akademian akuarela eta marrazkia landu zituen, bai eta Madrilen medikuntza ikasketak burutu. Bigarren Karlistadan, liberalen Santoñako ospitaleko mediku izan zen, baina Bilbora itzuli, medikuntza utzi eta bestelako beharrean hasi zen: Bilbo-Algorta tranbiako zuzendari. Dena den, José Ysaac Amannen jarduerarik garrantzitsuenak Neguri auzoko proiektua izan zen: 1904an hartu zuen horren ardura. m



ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris.s.l. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 M² KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4 ALGORTAKO AZOKA 48990 ALGORTA TF. 94 491 18 82

Kultur etxe berriaz jabetzen

Algortako Kultur Etxeak **agur** esan dio **Urgulleko eraikin ia historikoari**. Bisita egin diogu Villamonteko egoitza berriari, eta Manu Alkiza Kultur Etxeko langilearen laguntzaz, haren alde on eta ez hain onak ezagutu ditugu

Abuztutik, Algortako Kultur Etxearen egoitza Villamonten dago. Agur, beraz, 20 urte eta gero, Urgull kaleko egoitza zaharrari. Udaletxeak egokitzat jo du hiriko kultur gune nagusia erdigune fisikotik aldentzea, giro lasaiagora eramateko. Orain, modernotasuna darion solairu bakarreko eraikinerara ohitu beharko gara, apurka-apurka, algortarrok.



Manu Alkiza Getxoko Kultur Etxeko administrazio-burua da. Bera eduki dugu lagun egoitza berria ezagutzeko egin dugun bisitaldian, eta berak azaldu dizkigu, oraindik azken ukituak ematen dabiltzan langileen artean, aldaketaren zergatietako batzuk: *"Beti pentsatu dugu Algortako beheko aldeak ez zeukala kultur gune, eta beti pentsatu dugu zeozker eduki behar zuela. Horregatik, Udaletxeak leku hau erosi eta gure egoitza nagusia hona ekartzea aproposa izango zela pentsatu zuen"*.

Beraz, estetikari eta aretoen antolamenduari dagokienez aurrekoagaz zerikusirik ez daukan egoitzan kokatu da abuztuaz geroztik Algortako Kultur Etxea. Aldaketarik nabarmenetako bat solairu bakarrekoa izatea da. Horrek abantaila dezente dakar, gainera, Alkizak dioenez: *"Urgullen oztopo gehiegi zeuden elbarrientzat, eta hori ez da gertatuko hemen"*.

Hurbilago ala urrunago?

Kokapen berriak zeresanak sortu ditu, zer esanik ez. Batzuegana hurbildu, besteengandik urrundu, horixe da kontua. *"Egia da lehengo lekuak gauza on asko zeuzkala"*,



Guztiz bestelako itxura dauka Villamonteko egoitza berriak, Urgullekoagaz alderatuta

dio Alkizak, *"merkataritzagunean zegoelako eta zerbitzu asko hurbil zeuzkalako. Baina bestetik, Kasune, Villamonte, Hezetasun auzoa eta abarreko biztanleak pozago egongo dira orain"*.

«Lehengo zerbitzu guztiak daude egoitza berrian, aldaketakaz bada ere»

Lehengo Kultur Etxeak zeuzkan zerbitzu guztiak daude Villamonten ere, baina badaude aldaketak ere. Erakusgela txikiagoa da, esaterako, eta liburutegiak gela berezia dauka umeentzat. Berrikuntzarik aipagarriena, beharbada, eraikinaren erdian dagoen erabilera askotarako aretoa da. 220 metro koadro ingu-



ru dauka, eta mugitu daitezkeen panel batzuen bidez, lau, hiru, bi edo gela bakarra eduki daiteke bertan, unean uneko beharren

ZER GERTATUKO DA URGULLEKOAGAZ?

Urgull kalean eraikin huts bat geratu da orain. Udaletxera jo dugu horregaz zer egingo den jakiteko, eta Guzmán Aranaga kultur zinegotziak eman digu euren asmoen berri: "Alkateak dagoeneko adierazi duenez", esan digu Aranagak, "edadeko jendearentzako babestutako etxebizitzak egingo dira eraikin horretan. Beheko aldea, berriz, BBK-k alboan daukan egintza sozialaren egoitza handitzeko erabiliko da. Hori ere adinduek erabiltzekoa, bide batez esateko".

Auto gidarien gustura Tuning lantegia ireki dute Algortan



Irantzu Unzetabarrenetxea eta Andoni Rebollo, zabaldu berri duten lantegiaren atarian

Algortako Iparbide kalean tuning lantegia zabaldu zuten orain dela lau hilabete Andoni Rebollo basurtuarrak eta Irantzu Unzetabarrenetxea getxoartzarrak. Tuning izeneko fenomeno berriaren bidez, gidariak autoaren itxura goitik behera aldatzeko, "autoa euren gustura egokitu, eta horrela besteetatik bereiztu". Urte gitxi eduki arren, tuning-ak indar handia dauka Alemanian eta AEBetan, eta gero eta gehiago hedatzen dabil gurean.

Auto guztiak pertsonalizatu ahal dira, "baina horretarako aproposagoak diren markak eta modeloak daude", dio Irantzuk. Gorpil-hagun sofistikuak,

zorua doi-doi ukitzen duten azpiak, tapiz berriak, kolorezko kristalak... *"Tuning-agaz atal gehienak itxuraldatu daitezke"*. Baina moda berri honen zutabea musika-ekipamendua da, *"eta batzuek diskoteka bihurtzen dute autoaren atzealdea itzelezko bozgorailuakaz, anplifikadoreak..."* Tuning-zale batek 600 eurotik 30.000ra xahutu dezake.

Andoni Rebollok azaldu duenez, tuning-bilkurak egin gura dituzte: *"Arte merkataritza-gunean bat antolatzea gustatuko litzaiguke, baina ez dakigu baimenik emango diguten"*. Horrelako ikuskizunetan 200en bat auto bildu ohi dira. m

ENPLEGURAKO PLANA, EMAKUMEEI BEGIRA

Getxoko Udal Enplegurako Plangintza berria 2004-2007 lau urtekoan egongo da indarrean, eta emakumeei arreta berezia eskainiko die, *"Getxon langabeziaren arazoa gehien pairatzen duen taldea delako"*, Iñaki Zarragoa alkateak egitasmoaren aurkezpenean adierazi zuenez. 18.000 euroren truke idatzi eta diseinatuko ei da plan hori. Bestalde, azaroan, ezinduentzako eta 45 urtetik gorako langabetuentzako enplegua sustatzeko plan pilotu bi abiatuko dira.

FUTBOL-ZELAI BERRIA, 04-05 DENBORALDIRAKO

Dagoeneko, Areetako Futbol Taldeak denboraldi berriari ekin dio, hirugarren mailako goiko postuetan amaitzeko helburuagaz. Boluen jokatzeko dituzte etxeko partidak, baina 2004ko irailetik aurrera, eraikitzen dabilzan futbol-zelaia erabili dute, beharrok apirilean amaituko diren arren. Belar artifizialeko zelai berri hau Gobelako udal kiroldegian zati izango da, 1.250 lagun hartuko ditu, eta 100x60 metroko neurria edukiko du.

Arenas taldearen armarrria



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Lan poltsa berria

Behargintza Enplegu zentroak lan poltsa osatu du Getxoko dendetan behar egin gura duten pertsonentzako. Egitasmoa herriko merkataritzan euskara sustatzeko proiektu handi baten barruan kokatuta dago, Udaletxeko Euskara Zerbitzuak abiarazitako "Gehi euskara merkataritzara" programaren barruan hain zuzen.

Lan poltsa hau merkatarien esku ipiniko da, "Gehi euskara merkataritzara" betetzeko ordezkari langileak kontratatzea errazago suerta dakien. Euskara Zerbitzuak, bere aldetik, 2.500 euroko dirulaguntza emango die euskara ikastera doazen merkatariei, euren ordezkari langile euskalduna ipintzen badute, bezeroen harrerari dagozkion arloetan. m

Egitasmoa iragartzen duen kartela



uk
94 491 13 37

Aizkoa Olabarrieta >

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteko dinamizatzailea

"Umeen artean partaide fidelak lortu ditugu"



Argazkian, Aizkoa Olabarrieta

Erandioko Goiherri auzokoa da eta 28 urte dauzka. Soziologiako ikasketak egin zituen EHUn, baina liburuzain, zerbitzari, garbitzaile, informatzaile eta aktore ibilitakoa da Aizkoa Olabarrieta; orain, Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dinamizatzaile berria dugu.

—Zure jardunbidea oso oparoa izan da. Zelan ailegatu zara Bizarra Lepoan-era?

—Eusko Jaurlaritzako Informazio Sareko Barakaldoko bulegoan nabilela, harremanetan ipini nintzen aisialdi arloagaz; gustatu zitzaidan eta ikastea erabaki nuen. Bi urtez egon naiz goi mailako gizarte-kultur teknikari moduloa egiten, eta aurretengo ekainean amaitu dut.

—Eta uztailean hasi zinen elkartearen...
—Bai, ikasketak amaitu eta beharrean hasi dena bat izan da. UK aldizkari honetan irakurri nuen Bizarra Lepoan-ek dinamizatzaile bat behar zuela, lan-elkarrizketara aurkeztu nintzen, aukeratu ninduten... eta hemen nabil uztailean 7az geroztik.

—Zein izango da zure eginbeharra?

—Umeentzat, gazteentzat eta helduentzat egiten ditugun jarduerak guztiak koordinatuko ditut.

—Eta horretarako laguntza izango duzu...

—Bai, 5 pertsonak osatzen duten talde txoa, hain zuzen. Horientzako antolatzen ditugun hamaika ekitaldiez gain, kontuan hartu behar da Egizu egitasmoaren kideak garelako (euskaltegiak eta Udalagaz batera), aurtun sinatu den Gehi hitzarmenaren dinamizatzaileak ere bagarela...

—Egun, Bizarra Lepoan-ek 200 bazkide-tik gora ditu, baina esan daiteke umeak zuten "ohiko bezeroak" bihurtu direla.

—6tik 12 urtera bitarteko ume euskaldunen artean (Bapiruke egitasmoan parte hartu dezaketena, alegia), horrelako "talde fidelak" sortu da, 40 ume inguruk osatzen dutena. Gure jarduerak guztietan ematen dute izena, eta gehienetara datoz; hori lortzea gaxa da benetan. Gainera, partaide guztiak ez dira elkartearen bazkide.

—Datozen lau hilabeteetarako zer ekimen prestatu dituzue?

«Bizarra Lepoan elkartearen jarduerak gehienak koordinatuko ditut»

—Alde batetik, umeek Segura-Zerain bisitatuko dute urrian, eta azaroan, berriz, Pasaiaiko "Piraten Etxea". Bestetik, helduek irristaketa, surfa edo eskia egin ahal izango dituzte iraila eta abendua bitartean; ikasturtean zehar, berriz, aerobica eta areto-dantzak. Azken hau lehen aldiz eskaintzen dugu. m

* Aipatutako jardueren gainean argibide zehatzago gura baduzue, 94 491 43 57 telefonora deitu besterik ez duzue egin behar.

Denboraren makina gurean II. Ertaroko Azoka izango da Algortan



Bufoiak, malabaristak, bardoak, magoak, fakirrak... horiek eta gehiago ibiliko dira herrian zehar

Iaz arrakasta ederra lortu ostean, aurturaren 26tik 28ra, bigarren aldiz egingo da Ertaroko Azoka Algortan. Basagoiti etorbidean zehar eta San Nikolas eta Getxo Antzokiko plazetan, Ertaroko pertsonaiek (Alquimia Teatro taldeak antzeztuta) antzinagoko garaietara itzularaziko gaituzte hiru egun horietan.

Bufoiak, malabaristak, bardoak, magoak, fakirrak, eskaleak, soldaduak, borroeroak... horiek eta gehiago ibiliko dira merkatuak edukiko dituen salmenta-guneen inguruan giroa berotzen. Merkatuari berari dagokionez, bes-

talde, Ertaro kutsuko hainbat produktu eskuratu ahal izango dute bertaraten direnek; gainera, benetako artisauen lana bertatik bertara ikusteko aukera egongo da. Dena birbiltzeko, Algortako kaleak propio apainduko dira garai haietan ohikoak ziren ikurrakaz.

Erosteaz gain, zer ikusia ere izango da noski. Umeek, esaterako, astotxoaren gainean ibiltzeko modua edukiko dute. Gainera, musika emanaldiak, ipuin kontakaria, arrano eta belatz erakustaldia egongo dira, besteak beste, Getxok 1.000 urteko atzeranzko jautzia egingo duen asteburu horretan. m

KULTUR ETXEAK ARRAKASTATSUTZAT JO DU FOLK JAIALDIA

Getxoko Kultur Etxeak hilaren 3tik 7ra bitartean egindako Nazioarteko Folk Jaialdiaren balorazioa plazaratu du. Diotenez, arrakasta eduki du jaialdiak, 50.000 lagunengatik parte hartzeak ondo erakusten duenez. Ekitaldirik jendetsuenak Areetako Geltokiko Plazako kontzertuak izan dira berriz ere, Kultur Etxearen berbetan. Entzuleek gauero bete dute karpak, eta are karparen inguruak ere, Mary Black irlandar abeslariaren emanaldian bezala. Orchestra Baobab taldearen kontzertua ere azpimarratu dute; senegaldarrak antzezlekuetara itzuli dira 20 urtez geldirik egon eta gero, eta Getxon 3.500 lagun erakartzea lortu zuten.

Oro har, Kultur Etxeak egun osoan hirian izandako giroa nabarmendu gura du. Horretarako oso garrantzitsuak izan dira Britainia, Eskozia, Holanda eta Belgikatik etorritako kale-bandek emandako ikuskizunak. Kultur Etxeak dienez, Getxon, bost egunetz eta musika aitzakia, herrialde desberdinen arteko ezagutza eta begirunea sendotu dira.



KURKUDI
LIBURUDENDA
Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

San Nikolas
IKASTOLA

SATURDAY PLAY-SCHOOL

3-9 urteko euskaldunentzako INGELES ikastaroa
Urritik Ekainera, larunbatetan

• San Nikolas Ikastolan (Algorta) • Talde txikiak

Informazioa eta izena emateko:
Didak-Hamilton Idiomak / Dr. Landa, 6. 48600 Sopela. Tel: 94 676 30 12

Tranbiarako proiektua abian



Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpisailak Sestao, Leioako erdigunea eta EHUko campusa elkartuko dituen tranbiaren proiektu-egilea aukeratu du dagoeneko. Karmelo Sáinz de la Maza alkateak adierazi duenez, *“lanak, behin hasita, sei hilabete eta urtebete bitarteko epean burutuko dira”*, eta gaur egun garraio publikoz urri den Leioari mesede handia egingo dio.

Tranbiaren ibilbideak, Leioari dagokionez, Metro ondoko geltoki anitza eta EHUko campusa batuko ditu. Oraingoan, Sestao eta Leioako Udalek hitzarmena sinatu dute lanei lotutako kudeaketa administratiboak ahal den heinean arintzeko. ^m

Kaleak musikaz blai

Musikale jaialdiaren hirugarren edizioa izango da Leioan, irailaren 19, 20 eta 21 ean

Sestao, Basauri eta Erandiogaz batera, Leioak Musikale jaialdiaren hirugarren edizioa hartuko du aurton. Hiru egunez, bertoko eta atzerriko hamabi taldek kaleak alaituko dituzte, era guztietako musikaz. Oraingoan, gainera, Leioako talde batek ere hartuko du parte: Leioako Musika Banda 97 delakoak.

Leioako Musika Banda 97, izenak bestelakorik aditzera ematen duen arren, 1996an sortu zen, garai hartan herriko kontserbatorioan irakasle zebilen Ian Radcliffe-ren eskutik. Orduetik, hainbat ekitaldi eman dituzte Euskal Herrian eta atzerrian.

Leioakoa izango da Euskal Herriko ordezkari bakarra Musikalen. Gainerako taldeak urrunagotik datoz: Kuba, Kolonbia edo Boli Kostatik, esaterako. Hala, leioz-tarrek hainbat herrialdetako musika tradizionalez gozatzeko aukera edukiko dute.

45 minutu taldeko

Talde bakoitzak hiru ordu laurdenez joko du, beti ere herriko kaleetan zehar. Taldeak hiruak joango dira; beraz, ekitaldi bakoitzak ordu bi eta laurden iraungo du gutxi gorabehera. Hori bai, entzun gura duenak ibili egin beharko du. Xehetasun gehiago gura baduzue, 23. orrialdean topatuko duzue. ^m

Hainbat herritako taldeak izango dira Leioan



ERROTULOAK




Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu**

**udondo
taberna**
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Alicia Rodríguez > katu zaindaria

“Ez dut gura Udalak nire ‘umeak’ eroaterik”



Alicia Rodríguezek ahal duen guztia egingo du Udaletxeak “bere” katuak eroan ez ditzan

Behin, osteratxoan egiten zebilela, Alicia Rodríguezek katutxo bat ikusi zuen, jatekoa bilatzen. Animalien maitale amorratua da Alicia, eta hortaz, katuari janari


apur bat eroatea erabaki zuen. Hurrengo egunean han zegoen katu berriro zain, gero katu gehiago hasi ziren hurbiltzen, eta holan igaro dira hamazortzi urte.

Rodríguezek hemeretzi urte daroaz Negurigane auzoan bizitzen. Ia bertaratu zenetik dabil, beraz, katu zaindaria, lan horri denbora, diru eta buruhauste ugari eskainiz. Janaria ematen die egunean birritan, al baitariarengana eroaten ditu, “etxea” txukuntzen die... Orain arte ingurukoek baino ez dute eduki emakume honen jardunaren berri, baina azken boladan komunikabide askotan agertu zaigu, auzotar baten salaketak arriskuan jarri ditu-eta “bere” katuak.

“Abuztuaren 12an hasi zen dena”, diosku, *“Udaletxeak, salaketa bat zela eta, katuak eroango zituztela adierazi zidatenean”*. Rodríguezen ustez, Udaletxeak katuak hartzea haietzako heriotza izango litzateke, *“eurek ez daukatelako katuak non eduki”*. Oraingoan, Udaletxeak erabakia atzeratzea lortu du Aliciak, eta orain katuak hartuko dituen jendearen bila dabil, *“ondo zainduta egon daitezten”*. ^m

Harremanetarako: 686 751 325

ARGI eta GARBIA



MASTITXU EUSKALTEGIA

- 3 EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE-maila guztiak.
- 3 EGArako eta hizkuntz eskoletako Gaitasun Agirirako prestakuntza berezia.
- 3 Ordu-tegiak aukeran.
- 3 Bekak.
- 3 16 urtetik aurrera.
- 3 Kualifikazio handiko irakasleak.
- 3 Informatika-gela, Interneteko baliabide didaktikoak.
- 3 Matrikula-epea zabalik.

Iparragirre etorbidea, 78
48940 Leioa
Tfona: 94 464 00 02
www.euskaltegieioa.com
e-mail: euskaltegi@leioa.net



Hiru erandioztarren oporrak

Gironan lanean, Estatu Batuetako **Parke Nazionalak** ezagutzen eta **Done Jakue bidea** egiten. Gure hiru herrikidegaz egon gara eta euren oporrak **kontatu** dizkigute



Bea Martiarena > Costa Brava
"Denbora laburrean diru nahikoa irabaz dezakezu kanpinetan lanean"

Aurreko 4 urteetan bezalaxe, aurten ere bi hilabete egin ditu Beak Gironako Torroella de Montgri herriko kanpin erraldoi batean lanean. Bera joan baino lehen beste lagun batzuk ibili ziren Gironan lanean uda partean. Bere atzetik ere joan dira beste batzuk.

"Lan gogorra da kanpinekoa. Nik labandarian egin dut lan eta aurtengo berokin ito beharrean ibili gara lisaburdin bandedien artean, baina denbora laburrean diru polita inabazteko aukera ematen dizu. Normalean egunean 8 orduz egiten dugu lan, eta kanpinean bertan ematen digute logela eta jatekoa, bai eta arropak garbitu ere. Horretara ez daukazu gasturik, eta hori da kanpin honen alde ona. Gainera denbora laburrenako zoazenez, egunero egiten duzu lan diru gehiago ateratzeko. Nik bi hilabetean egun bakarra hartu dut jai." "Badaukat aukera denbora luzeagoan han geratzeko, baina ez dut nahi, faltan ditut etxeakoak eta hemengo lagunak eta giroa". m

Ainhoa Esnal > Ameriketako Estatu Batuak

"Amerikar euskaldun batekin euskaraz hitz egin dut han"

Estatu Batuetako mendebaleko parke naturalak ezagutzeko bidaia egin du Ainhoak abuztuan. Azken orduko erabakia izan zuen oporretan bidaiatzea, eta beste aukera batzuetarako lekurik ez zegoelako hartu zuen bidaia antolatu horretako txartela. "Bidaia guztiz polita izan da, paraje ikusgarrietan ibili gara. Zazpi lagun furgoneta batean, motxila eta kanpadendaz, Gran Teton-en hasi, Yellowstone, Arches, Canyonlands, Bryce Canyon, Monument Valley, Chelly, Grand Canyon, Death Valley ezagutu eta Yosemite bukatu. 40 gradutik gorako tenperaturak izan ditugu Death Valley eta Gran Canyon igotzen; haize hotza eta bortitza, ordea, Half Dome gainean. Eta gehien harritu nauena zera



izan da, bertako jendea oso zabala dela eta laguntzeko prest zegoela beti; nik hemendik neraman "amerikar harroputz" ustea ustel gertatu zait". "Unerik gogaikarrienak aireportuko kontrolak pasatzeko orduak izan dira, baina jakinaren gainean nengoen, pazientziatz jasan ditut". m

Unai Caño > Done Jakue bidea

"Lagun handiak egin ditut Orreagatik Santiagora bidean"

Unai Done Jakue bidea egin du aurtengo udan, eta berriz egiteko gogoz itzuli da. Bakarrrik hasi zuen bidea Orreagan, eta bidean egindako lagunekin izandako harremana azpimarratzen du beste edozeren gainetik. "Egunero 24 ordu elkarrekin ibilita, jendea ondo ezagutzeko aukera daukazu, eta benetan jende ona eta irekia ezagutu dut. Jendearekin hizketan zoazela, bidea atsegin egiten zaizu, eta bide batez, ikasi egiten duzu. Nik ez nekien ezer Done Jakue bideari buruz, eta gauza asko irakatsi didate."

18 eta 34 urte arteko hamalau bat laguneko taldea osatu eta parranda ugari egin dute eguneroko 30-35 kilometroko ibilal-



dien ondoren. Bere bizitza guztian baino eliza gehiagotara sartu dela ere esan digu.

Bideko azpiegiturei buruz galdetuta zera dio: "Nafarroa oso-oso garesti da jateko, edateko eta edozertarako; Galizia, ordea, merke. Gainera Galizian aterpeak doan dira, baina ez daude ondo zainduta. Azpiegitura aldetik badago zer hobetu". m

XXI. mendeko idazle berriak euskal idazle gazteen **biziak** eta **lanak** erakusgarri hilaren 26ra arte

Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz Euskara Zerbitzuak bideratutako ekimen batzuen barruan, XXI. Mendeko Idazle Berrien erakusketa jarri dute ikusgai udaletxeko erakusketa aretoan irailaren 15etik 26ra arte. Euskal Idazleen Elkarteak prestatutako erakusketa da, eta azken hamarkadan plazaratu diren hogeita hamar idazleri buruzko informazioa jaso dute bertan, gazteen literatura lanak ardatz hartuta. Lan horiez gainera, idazleen lekukotasunak, biografia laburra eta argitaratutako liburuen zerrenda ere ageri dira erakusketan.

Horren harira, guraso eta hezitzaileei zuzendutako hitzaldia eman du Iñaki Zubeldiak "Ahozko hizkuntzatik abiatuta pozik eta gustora irakurtzea" gaiaren inguruan.

Bestalde, irailaren 24an, Euskararen Aholku Batzordea eratuko da, Erandion euskararen erabilera normalizatzeko la-



Argazkian, Harkaitz Cano idazle gaztea

nekin zerikusia duten gaiak aztertzeko, eta bereziki, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egokitzen laguntzeko. Aurkezpen ekitaldia arratsaldeko 7:30ean egingo da udaletxean, eta herriko kultura, aisia eta kirol arloko elkartei zein interesa duten guztiei parte hartzerazera dei egin die Euskara Zerbitzuak. m

OSASUNAREN JAIA OSPATUKO DA AKARLANDAKO PARKEAN IRAILAREN 27AN

Drogamenpetasunen Prebentziorako Udal Batzordeak antolatzen du, herriko hainbat elkarteren laguntzaz, ume eta gazteei zuzendutako osasunaren jaia. Lantegiak, rokodromoa, puzgarriak, musika, dantzak, antzerkia eta beste hainbat jarduerara gozagarri izango dituzte gaztetxoek, bizimodu osasuntsua eta ingurumenaren babesa sustatzeko ekitaldi honetan. Tabakoa eta alkoholdun edariak alboratzea bultzatzeko helburua ere badute Akarlandan goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00etara egingo diren ekintzek. Aurtengoa hamargarren osasun jaia izango da, eta garrantzi berezia emango zaie umeen eskubideei.

laz ospatu zen jaiaren irudi bat



Euskara ikastaroak / Cursos de euskera 2003 / 2004

IRAILA - EKAIN - SEPTIEMBRE - JUNIO

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES 16 urtetik gora / A partir de 16 años

- * Egunean 2 orduko ikastaroak
- * Astean 5, 4, 3, 3, eta 2 egunekoak
- * Maila guztiak. Ordu-tegiak: goizez, arratsaldean eta abenduz
- * Ikastaro bereziak: Hizkuntza eskakizunak, EGA...
- * Cursos de 2 horas diarias
- * 5, 4, 3 y dos días a la semana
- * Todos los niveles. Horarios de mañana tarde y noche
- * Cursos especiales: Perfiles lingüísticos, EGA...

ABIERTA LA MATRICULA Del 1 al 23 de septiembre

*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)

*Baditugu BEKAK eta DIRU-LAGUNTZAK. GALDITAN PONEMOS BECAS y AYUDAS. !INFORMATE!

ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Bekoa Ikastetxea, Desanxión kalea, 4 behea Tel.: 94 467 60 71

erandio.eusk@euskalnet.net / www.udaleuskaltegiak.net

Udaletxea

Hilaren 25ean estreinatuko da batzar areto berriztatua

UKren 43. zenbakian azaldu genuen bezala, Sopela hazi egin da azken urteotan bizilagun kopuruz, eta horrek hainbat aldaketa eragin du; horien artean, udalbatzaren zinegotzien kopurua dago: lehen 13 kide zituen, eta agintaldi honetatik aurrera, berriz, 17. Aldaketa horren ondorioz, eta herritarrei behar bezalako zerbitzua emateko, Udaletxearen barrua goitik behera egokitu behar izan dute, eta azken asteotan udal-bulegoak atontzen ibili dira. Beharrok iraun duten bitartean, Sopelako zinegotziek atondoan egin dituzte udalbatzak, baina dagoeneko badaukate batzar areto berria; iragarri digutenez, irailaren 25ean estreinatuko dute. **m**

Sopelako Udaletxea



Inguru honetan eraikiko da Zalduko urbanizazioa

Zaldu berria, abian

Sopelako eremu horretan familia bakarreko etxebizitzak eta frontoi bat eraikiko dira

Irailaren 2an egin zen ezohiko batzarrean, Zalduko bizileku-eremuaren urbanizazio lanak "Vicons, S.A." izeneko enpresari ematea onartu zuen Sopelako Udalak; beraz, agintarientzako "oso garrantzitsua" den gaia abian ipini da, eta laster hasiko dira aipatutako beharrak.

Zalduko eremua Urdulizetik gertu dago, eta bertan familia bakarreko ehun etxebizitza baino gehiago eraikiko dituzte (horietako 29 babes ofizialekoak izango dira, hasiera batean); udal iturriek adierazi dutenez, "lursail horietan egingo

diran beharrak Iturrietako parkea handiagotzea ekarriko dute". Aurreikusita dago frontoi bat ere hor paratzea: "Gaurkoa lagun askok erabili ohi dute eta ia beteta dago; frontoi berriak eskaera handi horri erantzungo lioke".

Egin behar den guztia gauzatzeko, diru asko sartuko dute 2004ko aurrekontuetan. Zalduko urbanizazioaren egitasmoa aurrera ateratzen EAJren botoakaz; Sopela Aurrera, PSE eta PP abstenitu egin ziren, eta Ezker Batuak, berriz, ezezkua eman zuen, etxebizitza sozialen gabeziarengatik. **m**

Gorka Yarritu > Surf irakaslea

Ohol gainean maisu

Sopelako Surf Eskolaren zuzendaria da



Gorka Yarrituk dagoeneko ez du surf txapelketetan parte hartzen

Duela 34 urte jaio zen Algortan, eta orain Sopelan du bizilekua eta lana. Txikia eta izpitsua da, eta beti dago beltzaran. 1992an eta 1993an Euskadiko Surf Txapelketa irabazi zuen, eta zenbait urtetan Europako onenen artean egon zen; baina gaur, Gorka Yarrituk lehiatzen utzi dio, "eta zuzentzen dudana Sopelako Reef Billabong Surf Eskolan daukat ipinita arreta guztia".

Urrira arte ikastaro bat ematen dabil Larrabasterrako hondartzan surfa ikasi gura dutenei: "Aste Santuan hasi nintzen, eta orain zortzi eskola ematen ditut egunero 70en bat laguni". Tartean, adin guztietakoak daude, "8 urtetik 40tik gorakak arte. Kirol honetan ez dago adinaren

mugarik, gogoia izatea da kontua", dio Yarrituk. Surf ikastaroak 10 orduko iraupena dauka (EHUko ikasleentzako, berriz, 15 ordu dira).

Ikasgaiak

Oholaren gainean kokatzen, tresneria egokiena aukeratzen, hondartza ezagutzen edo uretan eduki behar den jokabidea ikasten dute. "Olatuak, korronteak, haizeak eta itsasaldeak ezagutzea ere oso garrantzitsua da".

Eta ikastaroa amaiatu ostean... nork daki, Mundakako olatu preziatuak harapatzen ausartu daitezke ikasleak, Gorka Yarritu maisuak astia duenean egiten duen bezala. **m**

SOPELAKO KALE-IZENDEGI BERRIA

Sopelako Udalak herriko kale-izen-degi praktiko eta erabilerraza argitaratu du orain dela gutxi; guztira 1.000 ale kaleratu ditu, aurreko argitaraldia urria izan zelako. Eguneratuta dagoen plano horretan herriko kale guztiak, urbanizazio berriak eta oraindik amaitu barik dauden industrialdeak sartu dituzte. Sopelako mapa berria eduki gura duten herritarrek Udaletxeko informazio-gunera joan behar dute, eta bertan emango diete musu-truk.

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

4 bide
pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis
x Esgintzeak
x Bizkarreko Erreuma x
mina Kiroleko lesio
ak x

Loitzun Izaola
Azkona

Fisioterapeuta, 459 kolegiatu zenbakia

Mendieta 2, SOPELA
617 67 45 36

erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA

LAKIAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Eguneroko bizikidetza ospatzen

Abuztuan egindako Nazioarteko Dantzaldiak bertoko eta atzerriko lagunaren arteko harremana estutzeko balio izan du

Abuztuan egindako Nazioarteko Dantzaldia zer esana ematen dabil oraindik. Simón Otxandategi dantza taldeak oso arrakastatsuz jo du ekimena, bai ikuskizunari berrari eta baita atzerriko taldeakazko bizikidetzari dagokionez ere.

Austria, Holanda, Alemania, Flandes eta Kataluniatik etorri ziren taldeok -190 lagun guztira-, eta horietako partaideak Otxandategi taldeko kideen eta Berangoko beste pertsona batzuen etxeetan bizi izan ziren. Hizkuntza, beraz, arazoa izan zen kasu gehienetan. Jone Lurrebasok, esaterako, austriar bi hartu zituen etxean, antolatzailei laguntzarren. Ingeles ez eta alemanieraz berbarik ez dakienez, hamahiru urteko semeak lagundu dio arlo horretan. Dena dela, "bizipena zoragarria izan dela" dio.

Iratxe Herranz dantzariak 17 lagun hartu zituen guztira, hiru etxetan banatuta. "Nahikoa zoratuta" ibili zela diosku, guztia

antolatzen lan handia eduki zuen eta, askotan elkar ulertzeko zailtasunakaz gainera. Esan digunez, bere etxean egondakoek esker oneko mezuak igortzen dizkiote oraindik.

Batzuek bestelako beharretan jardun zuten. Lurdes Uribe egunero ibili zen 200 lagun baino gehiagorentzako armosua presatzen, beste sei pertsonagaz batera. Goizeko

«Bost herrialdeetako 190 lagun hartu dituzte berangoztarrek euren etxeetan»

8etatik 10:30ak arte, gosaria egin eta hurrengo eguneko mahaiak atontzen zituen Lurdesek. Otxandategi dantza taldeak azpimarratu egin gura izan du taldetik kanpoko jendeak emandako laguntza hori, "bestela ezingo genukeelako jaialdia behar bezala aurrea eroan". m



Goian, Austriako musikariak Berangotik kalejiran. Behean, talde guztiak udaletxe aurrean.

Bertsolari gazteak



Aurten ere bertsolaritza ikasten jarraituko dute gazte hauek

Irudian ikus ditzakezuen neska-mutikoak Ainara, Ibai, Endaitz eta Alex dira. Aurreko ikasturtean bertsolaritza ikasten jardun zuten, Nahikari Ayo ALBEko kidea irakasle zeukatela. Nahikoa arin ikasi gainera: abendurako bazeukaten emana lehen ekitaldia, Berangoko eskoletan, eta uztailean Santa Anako jaietan aritu ziren, trebatutako hainbat bertsolarigaz batera. 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxo hauek bertsolaritza ikasten jarraituko dute aurten, eta gura duen edozeinek ere hala egin dezake. Horretarako Berangoko Santo Domingo de Guzmán eskolako guraso elkarteagaz harremanean jarri behar da, eurek antolatzen dute-eta ekimen hau.



Urrian hasiko dira lanak

OTXANDATEGI ETORBIDEA EGOKITUKO DUTE

Udaletxetik adierazi digutenez, datorren urrian hasiko dira Simón de Otxandategi etorbidea egokituko lanak. Oraingoz, Otxandategi beraren monumentutik Getxora doan aldean baino ez dira egingo lan horiek; "aurrekontu arazoak direla eta, epe bitan egingo da, eta oraingoz hau egingo dugu bakarrik", esan digu Ixone Legarreta udal langileak, "dena dela, datorren urterako dena eginda egotea gura dugu".

Besteak beste, espaloiak egokituko dira legedia bete dezaten. Hala, zebra-bideak dauden lekuetan, "zebra-bidea eta espaloia maila berean ipiniko dira", eta etorbideak beste kale batzukaz bidegurutzeta egiten duen lekuetan bajatu egingo da espaloia, igarotzea denontzako erraza izan dadin. Bestalde, "mupi" izeneko informazio-panel handiak ipiniko dira han-hemenka etorbidean.

SATISTEGI

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51 ALGORTA

cianoplan s.a. global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopia.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopia kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR ER Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR GA Gestión Ambiental CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Irailak 19 / Urriak 3

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

[herriak]

PLENTZIA

Antolintxu, leku guztietan dagoen santua

Pare bat aste igaro dira Plentziako Santantolinak amaitu zirenetik, baina Jesús Peñak ondo gogoan edukiko ditu oraindik ere. Jaietako protagonista nagusia izatea bizitzan behin (edo behin ere ez) suertatzen den gauza da, eta halaxe gertatu zaio Peñari aurtten, Antolintxuarena egitea egokitu zaio eta.

"*Sekula ez zitzaidan bururatuko Antolintxu neu izan nintekeenik*", diosku 54 urte dituen, eta gaur egun, patuaren txantxak nonbait, Gorlizen bizi den gizon honek. Jai-batzordeak jaiak hasi baino

lauzpabost egun lehenago esan zion bera hautatu zutela Antolintxu izateko, eta "*ozta-ozta eduki nuen jantziak prestatzeko denborarik*". Hortik aurrera, zeregin ugari eta atsedean gutxi: "*Ez naiz oheratu ere egin lau egunetan*", aitortu digu Jesússek.

Askotxo dira Antolintxu baten zereginak: sari banaketa guztiak berak egin, hainbat bazkaritan parte hartu... Umeakaz batera egiteko gauzak ditu gustukoak Peñak, eta alde horretatik pozik egoteko arrazoirik badauka, "*oraindik ere kalean geldiarazten naute eta*". m

Argazkian, Jesús Peña aurtengo Antolintxu



GORLIZ

Mendiko bizikleta txapelketa, 21ean

Irailero legez, eta Mendibike Kirol Elkartek antolatuta, Gorlizko Mendiko Bizikleta txapelketa egingo da hilaren 21ean (domeka). Probak 12. aldia beteko du aurtun, eta berrikuntza garrantzitsu batez dator: Bizkaiko txapelketarako balio izango du. Manu García Tojo Mendibike elkarteraren presidentea azaldu digunez, "*edozein txirrindularik parte hartu dezake, ez dio axola jatorriak, baina Bizkaiko federatuek*

lurnaldeko txapela lortzeko aukera izango dute".

Partaideak 8 kilometro dituen Fanoko zirkuituan arituko dira lehian, eta irteera zein helmuga Uresaransa kiroldegian paratu dute antolatzailerek. Egitaraua zaleentzako martxa batez hasiko da goizeko 10etan; handik ordu laurdenera-edo, 12 urtetik beherakoentzako martxa txikia izango da, eta norgehiagoka, berriz, 11etan. m

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Matilde Ruiz Larssonen ohialezko eskulanak.** Erakustaretoan. Irailaren 30a arte.

GORLIZ

► **Haurrentzako antzerkia.** Udal erakusgelan (José Antonio Agirre plazan). Irailaren 22tik urriaren 6ra.

PLENTZIA

► **Elisabete Mendizabalen olioak.** Goñi Portalen. Irailaren 30a arte.
► **Plentziako margo lehiaketaren irabazleen lanak.** Goñi Portalen. Irailaren 26a arte.

IRTEERAK

BERANGO

► **Kilometroak 2003 (Lazkao).** Urriak 5, domeka. Irteera 9:15etan, metro geltokitik. Itzulera 20:00etan. Izen ematea Kultur Etxean, irailaren 30a arte.

PLENTZIA

► **Urdaibaira irteera.** Bazkaria Santimamiñen. Arratsaldean, Omako basora bisita. Irailak 28, domeka. Irteera 10:30etan, itzulera 19:30etan. Izen ematea Goñi Portalen, irailaren 22a arte.

Kilometroak 2003 (Lazkao).

Urriak 5, domeka. Irteera 9:00etan, itzulera 20:30etan. Izen ematea Goñi Portalen, irailaren 30a arte.

Nafarroa Oinez 2003 (Irunberri).

Urriak 19, domeka. Irteera 8:00etan, itzulera 21:00etan. Izen ematea Goñi Portalen, irailaren 30a arte.

LEHIAKETAK

LEIOA

► **X. bideo lehiaketa.** Gaia askea izango da, eta lanak argitaratu gabek eta beste lehiaketatan saritu gabek izan beharko dira. VHS euskarriaren emango dira, eta gutxienez 4 minutu eta gehienez 11 irau beharko dute. Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behe. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com

► **XVII. argazki lehiaketa.** Gaia askea izango da, eta lanak berriak, argitaratu gabek eta beste lehiaketatan saritu gabek izan beharko dira. Koloretan edo zurbeltzean aur-



► ANTZERKIA

Sirgerak antzezlan ikusgai Getxon

Irailaren 20an *Sirgerak* antzezlan ikusteko aukera egongo da Getxon. Hainbat talderen eskutik, eta hiru emanalditan (Txurruka kaian, Areetako Kale Nagusian eta Areetako Geltoko Plazan, hurrenez hurren), XIX. mendean itsasontziak arrastaka mugitzen zituzten itsasadarraren eskumaldeko emakumeen lana (sirgerak, hain zuzen) gogoratuko du antzezlan herrikoi honek.

Non: Getxoko hainbat lekutan • **Noiz:** Irailak 20, zapatua
• **Ordua:** 12:15, 19:00 eta 19:45

keztu ahal izango dira, 30x40 zentimetroko euskarri gogorren (2 milimetroko lodierakoa). Emateko epea azaroaren 14an amaituko da, 14:00etan. Emateko lekua: Leioako Kultur Aretoa, Sabino Arana 67, behe. Sari banaketa, abenduaren 20an, Sakonetako Kultur Etxearen Erakusketa gelan, 12:00etan. Informazio gehiago eskuratzeko: www.kulturleioa.com

► **Bateria clinic-a Ricardo canteraren eskutik.** Josu Murueta Kultur Etxean. Irailak 25, eguena. 19:00.

► **Jamaica orkestra.** Dantza egiteko musika. Astrabuduako Josu Murueta plazan. Irailak 28, domeka. 18:00-21:00.

LEIOA

► **Musikale, Kaleko Musikariaren Nazioarteko III. Topaketa.** Irailaren 19an (barikua): Parranda Tabajoste, Banda Sagana eta Re-percusión (arratsalde). Irailaren 20an (zapatua): goizez, Troupe Yelemba, Pixie and

MUSIKA

ERANDIO

► **Musikale, Kaleko Musikariaren Nazioarteko III. Topaketa.** Irailaren 20an (zapatua): Astrabuduan, 12:30etan, The Bollywood Brass Band, Banda Sagana eta Ribalta. Altzagan, 19:30etan, Troupe Yelemba, Pixie and Dixie band eta Leioako Musika Banda. Irailaren 21ean (domeka): Altzagan, 12:30etan, Belle Image, Palo Q'sea eta Llariegu. Astrabuduan, 18:00etan, Fanfarre Speranta, Re-percusión eta Parranda Tabajoste.

► **Galea orkestra.** Dantza egiteko musika. Altzagako Irailaren 23a plazan. Irailak 21, domeka. 18:00-21:00.

Dixie Band eta Leioako Musika Banda; arratsalde, The Bollywood Brass Band, Banda Sagana eta Ribalta. Irailaren 21ean (domeka): goizez, Fanfarre Speranta, Re-percusión eta Parranda Tabajoste; arratsalde, Belle Image, Palo Q'sea eta Llariegu.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Frida.** Goñi Portalen. Irailak 19, barikua. 22:00.
► **El pianista.** Goñi Portalen. Irailak 26, barikua. 22:00.

BESTERIK

ERANDIO

► **Osasunaren eta umeen eskubideen jai.** Akarlanda parkean. Irailak 27, zapatua. 10:00-19:00.
► **Extremaduraren eguna.** Akarlanda parkean. Irailak 28, domeka. Egun osoan zehar.

GETXO

► **II. Erdi Aroko azoka.** Basagoiti etorbidean eta San Nikolas eta Getxo Antzokiko plazetan. Artisautza, musika, antzerkia, magoak... Irailak 26, 27 eta 28. Orduetia: 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

SOPELA

► **Martxa txirrindulari.** Udaletxeko plazatik irtenda, herriko kaleetan zehar. Irailak 20, zapatua. 13:00
► **Charro taldearen emanaldia.** Errunba flamenkoak. Udaletxearen atzean, ainguraren ondoan. Irailak 20, zapatua. 20:30.

AUTORIK GABEKO EGUNA

► **Irailaren 22an.** Hainbat herritan (Getxo, Sopela...). Ahal den heinean autorik ez erabiltzea eskatzen zaie herritar guztiei.

namaika bide		zenbat gara elkarte	
1	Kafe Antzokia Bilbo	1	San Vicente 2
2	Kafe Antzokia Ondarroa	2	4. solairua
3	Ondarroako Arrigorri itsas ostiatua	3	48001
4	Algara konpartsa	4	94 423 75 91
5	Zaparrada Gaztegunea	5	
6	Olgetan Umearena	6	
7	Elkartaren zerbitzu, ikastaro eta tailerrak	7	
8	Bakaikuko etxea	8	
9	Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm	9	
10	Zenbat Gara aldizkaria	10	
11	Gara argitaletxea	11	



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berrri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxa: 94 430 74 03


Ajuria taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



[albuma]



Serantes gure zaindaria

Behin, konturatu ginen UKn argitaratzen ditugun argazkietako asko eta askotan Serantes mendia ikus daitekeela, erretratuaren atzealdean, gure eskualdearen zati handi baten zelatari. Ibaizabalen beste aldean egon arren ia-ia Uribe Kostako ikurretako bat dugun mendiri omenalditxo bat egin gura izan diogu, beraz, gaurko album honegaz.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Leitzan jaio, Leitzan hazi eta Leitzan bizi. Unibertso txikia dirudi horrek Iñaki Perurena bezalako pertsona batentzat. Baina berak ez du gauza bera uste. Harria jasotzen Euskal Herriko markak hausten ibili zen garai batean. Hura erabat utzi barik, telebistara egin zuen jauzi. Alabaina, arrakasta mediatikoaren gainera, herriko guztientzat Perurenak harategiko jabea izaten jarraitzen du. “Leitzar bat gehiago”, berak esaten duen moduan. Bere inguruan sor daitezkeen polemikek ez diote loa galarazten. Bost axola Savaterrek eta gainerakoek esan dezaketena. Hurrengo egunean jaikitzeo arrazoiak edukitzea, horrek bakarrik kezkatzen du. Eta, une honetan, planek gainezka egiten diote. Ez, ez zaio ilusioa falta.

Iñaki Perurena

Euskal harriak badu bihotzik

Testua: **Esti Ezkerra**

—Harria jasotzen ezagutu zintugun, baina azken urteotan bestelako saltsatan sarturik ikusi zaitugu.

—Ni izatez kirolaria naiz, baina kirol presaketek garai batean gaur egun baino garrantzi handiagoa zuten nire eguneroko egitekoen artean. Hala ere, kirolean erakustaldiak egiten jarraitzen dut. Hain zuzen, momentu honetan, Kataluniara noa erakustaldi batzuk direla-eta. Bestelako lanak ere egiten ditut, harategian, baserrian, eta tarte-ka, telebistan. Horrelako gauzak antolatzen ibiltzen naiz.

—Zelan daramazu lan aniztasun hori: ez dira elkarrekin lotura handia duten arloak.

—Bai, baina nik uste jende askok egiten duela hori. Ez daukat langile arrunten moduan, goiz eta gauetz, nahitaez fitxatzera derrigortzen nauen lanik. Gure bizitzak egunero hogeita lau ordu ditu, eta bakoitzak bere arabera antolatzen ditu. Batek oporrak badaia luze bat egiteko aprobetxatuko ditu, eta beste batek agian nahiago izango du etxean geratu. Hemen bakoitzak bere modura gidatzen du bizitza.

—Harria jasotzeak, esate baterako, zer eman dizu?

—Harrijasotzeak dena eman dit. Nolabait, nire bizi osoa markatu du, umetatik hasi eta gaur egun arte. Zaletasuna zena gehiagotzen joan zen; gauzak ikusteko, bizia bera aurre-

ra ateratzeko modua bihurtu zitzaidan.

—Hain zuzen, zaletasun hori semeari igorri diozu. Edukiko duzu gai horren inguruan zer gomendatu, ziurrenik.

—Harrijasotzea, erakutsi didanagatik bakarrik, nahiko aberasgarria izan da, eta semearentzako beste horrenbeste izatea gustatuko litzaidake. Ez dadila kirola bakar-bakarrik izan, baizik eta zerbait gehiago.

—Telebistari dagokionez, zergatik jo zenuen mundu horretara?

—Nik ez nuen mundu horretara jo. Euskal Herria nahiko txikia denez, erraz ezagutzen dugu elkar. Gainera, telebistako jendearentzat pertsona ezaguna nintzen, hainbat elkarriketa egin zizkidaten. Eta, halako batean, hango jendeak ni tarteko izatea interesgarria izan zitekeela pentsatu zuen. Horrela hasi nintzen.

“Gizartea irudi politekin janzten dugu egiazki irudi tristez beterik dagoenean”

—Eta eskaintza horien artean, Goenkaleko aktore zerrendan sartzeko aukera sortu zitzaitzun. Oraindik ere horrekin jarraitzen duzu.

—Oso esperientzia polita da. Kirolean lanak zeuk egitera ohituta zaude, eta Goenkale-n, berriz, talde bat duzu ondoan. Bi

elementu horiek elkar uztartzea aberasgarria iruditzen zait.

—Ezagunak diren guztiek ez dute ospea berdin eramaten. Sarritan, ospea zama astuna bihur daiteke.

—Ez dakit. Nire kasuan, behintzat, ez da horrela. Polita eta atsegina da kontu hau guztia.

—Alabaina, ezagun izate hutsak gaizki-lertzeak eta denetariko polemikak eragin ditzake, askotan norberak halakorik nahi izan gabe. Savaterrekin gertaturikoagatik esaten dizut hori, berak zu erabili baitzintuen bere teoriak indartzeko.

—Kontu horretan ez da polemikarik sortu. Berak gezur bat esan zuen, eta halaxe azaldu nuen nik. Berak bere gezurrekin jarraitu zuen, baina nire ustez nahiko argi geratu zen zeinek esaten zuen egia eta zeinek ez.

—Kontua zera da: zenbaitek kanpoan Euskal Herriari buruz ematen duten irudia ez da behar bezalakoa izaten.

—Garbi dago Euskal Herriari buruzko irudi interesatua ematen dela. Gainera, Euskal Herriaren historia den modukoa azaltzea askotan ez da komeni, eta jakina, ez



“Garbi dago Euskal Herriari buruz irudi interesatua ematen dela. Batzuentzat hemengo historia den modukoa azaltzea ez da komeni”

dute egiten. Ez dakit nola esan. Hogeita lau orduko egun batean, ordu eguzkitsuak, eta tartean, eurijasa handiak egon daitezke. Baina egun hori nolakoa den jakiteko, egun osoa azaldu behar duzu, eta ez momentu bakar batera mugatu. Askotan horixe gertatzen da gure historiarekin.

—Zu zeu kanpora zoazenean, zer moduzko harremana izan duzu jendearekin?

—Harreman nahiko ona. Harrijasotzaile bezala, euskaldun bezala ikusten gaituzte. Indar erakustaldi hauetan jendearekin hartu-eman zuzena sortzen da. Oro har oroitzapen onak ditut kanpoan egindako erakustaldiez.

—Epe laburrean, zer egitea gustatuko litzazuke?

—Gauza asko dauzkat egiteko. Bizitzan ilusio ematen dizuna horixe da: egitekoak izatea. Azken finean, zu ohera zoazenean zerbait behar duzu hurrengo egunean jeiki eta martxan jartzeko. Bestela, zure bizitzak ez luke zentzu handirik izango. Zorionez,

gauza asko ditut buruan, eta haiek egiten pasa nahi ditut nire bizitzako orduak, egunak eta urteak.

—Desio bat?

—Denok izan dezagula bizitza merezi duen moduan bizitzeko aukera. Zoritxarrez, hori gehiegi eskatzea da, baina, ahal den neurrian, gizarte honetan helburu horretara iristeko urratsak ematea nahiko nuke.

—Gizartea aipatu duzula, zer eskatuko zenioke?

—Gizarteari gauza asko eskatu beharko litzazkioke. Badakizu zer gertatzen den hemen? Lehendabizi geure zilborrari begiratzen diogu, eta hura ondo dagoenean, orduan hasten gara ingurura begiratzen. Zoritxarrez, lehenengo geure burua maitatzen irakatsi digute, eta ez dut esaten nork bere burua maite behar ez duenik. Baina egunkarrietan, aldizkarietan zein telebistan nonbaiten gosete batek edo lurrikara batek ez dakit zenbat jende hil duela ikusten dugunean, Iraken bertan une honetan gertatzen

ari dena, mementoan bertan bai, munduko bidegabekeriak salatuko ditugu. Baina hurrengo egunean berdin-berdin joango gara oporretan, azken finean urrutiko kontuak baitira. Ahaztu egiten gara. Alde batetik ondo dago ahaztea, bestela burutik eginda amaituko genuke. Baina, tamalez, gizarte hau irudi politekin janzten dugu egiazki gizakiak irudi tristez beteriko gizartea sortu duenean.

—Elkartasuna hainbeste aipatzen den garai hauetan, ordu batzuetako elkartasuna besterik ez da, ezta?

—Bai, nolabait azaleko elkartasuna, eta azal barrena ere ikusi egin behar da.

—Politikoez ere izango dute zer esanik, ezta?

—Haiek beren mundua dute. Zoritxarrez, politikoez bide batetik jotzen dute, eta herriak beste bat eraman behar izaten du, halaxe nahi izan zein ez. Politikoez beren zilborra ondo babesten dute, eta askotan, herriarentzat azala egiten dute. m



Arteako pasealekuak jendez gainezka egoten dira, asteburuan batik bat. Batzuek egun osoa igarotzen dute bertan



Aisialdia eta kontsumoa gero eta lotuago daude, Patxi Juaristi adituaren ustetan

Aisialdia, heritik kanpora

Non daude orain hamar urte Amezti kalea asteburu gauetan betetzen zuten gazte taldeak? Kirol Portura joan ei dira. Non daude hirurogei urteko txikitozaleen lekukoa hartu behar zuten belaunaldi berriak? Artean, film bat ikusten. Denborak aldatzen dira, dino Benito Lertxundiren kantuek, bai eta hau ere: denboragile berriek sortzen dituzte denbora berriak. Ez zebilen oker. Eta denboragile berrien irudirik adierazgarriena azalera handiko merkataritza-guneak dira XXI. mendeko lehen urrats hauetan. Mundu osoan bezala gure eskualdean ere aldatzen dauden aisialdi-ohiturez jardun gura dugu oraingoan. Aldaketa pozteko ala atsekabetezko den, norberak erabaki dezala.

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Mendebalekoa deritzon gizartearen abian dauden ohitura-aldaketak oso begibistakoak dira Uribe Kostan. Aisialdia gero eta lotuago dago kontsumitzaileekin, eta badirudi, askok Costa Rica esaten dioten eskualde honetan, ez gabiltzala kontsumitzaileentzako aukera faltan, dirua ere sobera ei daukagu eta.

Kontuak kontu, aisialdia erabiltzeko moldeak aldatu direla ukaezina da. Elkartzeko guneak joan egin dira hiriaren erditik kanpo aldera, eta beti ere ezaugarri

nabarmena daukaten lekuetara: espazio txikian eskaintza zabala eta askotarikoa, lehenago leku desberdinetan (eta are egun desberdinetan ere) egin behar zirenak bertatik bertara eta denbora laburrean egiteko aukera.

Denok bide beretik

Patxi Juaristi EHUko irakasleak urteak daroaz gizarte-joera berriak aztertzen. Dioenez, "gertatzen ari den aldaketak arlo asko dauzka: kulturarena, ekonomiarena,

kontsumoarena... Kultura homogeenoa bihurtzen doa, modu izugarrian; berdin jantzi behar dugu, berdin jan behar dugu, berdin pentsatu behar dugu".

Aisialdia bizitzeko formek ere ez diote ihes egin bateratze-prozesu horri, antza. Juaristik dioenez, azalera handiko merkataritza-guneen arrakastak homogeneizatze horretan laguntzen du. Baina, zergatik lortu dute arrakasta hori? "Kontsumoa erakargarria delako. Leku batera sartzea eta milaka produktu ikustea erakargarria da

eta denbora igarotzeko modu polita izan daiteke". Izan ere, eta hori dateke gakoa, egun osoa igaro liteke Artean (adibide bat ematearren), gauza desberdin asko eginez: bazkaldu, erosketa egin, pelikula bat ikusi, jolastu, autoa konpondu...

Oreka posible da?

Batak irabazten duena besteak galdu behar. Merkataritza eta ostalaritza txikiak gogor jasaten du gune handien agerpena, eta denda eta tabernek egokitzearen edo ixtearen artean aukeratu behar izan dute. Hori, edo gutxiagorik bizitzen ikasi. Getxon, esaterako, erdiguneko denda askok bezeroak erakartzeko modu berriei ekin diete, alboko laukian azaltzen dugunez. Beste batzuek, bere izena agertzea

gura ez duen Ameztiko tabernari batek bezala, egoeragaz konforme egoten ikasi dute.

Merkataritza mota bien arteko bizikidetza posible ete den galdetuta, Patxi Juaristik ez du zalantzarik agertu: "Momentu honetan ez, gobernuek ez dutelako horren alde egiten. Frantzian, esaterako, denda handiek zerga berezi bat ordaindu behar dute, eta diru hori denda txikiaren garapenerako erabiltzen da. Hemen ez dago halakorik". Ordezkatze-prozesu baten aurrean egon gaitezke, beraz. Juaristiren iritziz, "prozesu horren erdian baino ez gaude, baina ezin uka denda txikiak ixten direla, eta nik ez dut uste, gauzak orain dauden bezala behintzat, egoera aldatzeko aukerarik dagoenik". m

«Kultura berdintzeak aisialdiaz gozatzeko erari eragiten dio, Patxi Juaristiren ustez»

Batzuen eta besteen armak

Zeozter edukiko dute, bada, azalera handiko merkataritza-guneek, hainbeste jende erakartzeko gauza direnean. Uribe Kostan dauden mota horretako erosleku bietara (Artea eta Getxoko Kirol Portua) jo dugu, eskaintzen dutena zer den hobeto jakiteko; zoritxarrez, ez dugu hau idazteko orduan Artearen erantzunik jaso.

Getxoko Kirol Portuari dagokionez, hango jatetxe gehienek ugazaba den Lastur enpresagaz jarri gara harremanean. Luis García gerenteak dioskunez, zortzi jatetxe dauzkate eraikin berean, "janari mota desberdinak eskaintzen dituztenak: Euskal Herrikoa, mexikarra, txinarra, pizza...". Lehenago ikusi dugunez, leku berean gauza asko eskaintzea ei da gakoa. Ez da ahaztu behar, noski, bisitariak zinematik, tabernak, jolasguneak... topa ditzaketela jatetxe horien pare-parean.

Zelan aurre egin horri?



Merkatalgune handien eragina gehien jasaten dutenen iritzia bildu dugu itaun horri erantzuna eman guran. Nuria Ruiz de Hillak, Getxo Enpresa eta Merkataritzako zuzendariak, zera dio: "Argi dago guri eragiten diguten merkataritza forma berriak agertzen doazela, eta argi dago, aldi berean, guk ezin dugula beste barik begira egon. Beraz, geure alderdi onak indartu behar ditugu: profesionaltasuna, saltzen dugun produktua oso ondo ezagutzea, bezeroagaz harreman hurbila edukitea...". Ildo horretan, GEMek bere kideen etengabeko heziketaren aldeko apustua egin du.





Irudi miragarriak

Erligio gaien erretratu egiteak erakartzen du Iker Elorriaga argazkilaria algortarra. Irudi hauek utzi dizkigu, berak iaz Lourdes (Frantzia) errotes-hirian eginak.

Argazkiak: **Iker Elorriaga**





zineeskola

Oskar Fernández

Jatorrizko bertsioak edo itzulpenak?

Jatorrizko bertsioak gehien bat zinema jaialdietan ikus daitezke. Ekintza kultural hauetan erakusten diren filmak grabatu diren moduan entzuten dira, hizkuntza aldatu gabe, beraz. Eta hizkuntza hori ulertzen ez duten ikusleek ere filmaren haria jarrai dezakete, azpituiluei esker. Ere horretatik kanpo, areto komertzialetan alegia, filmak itzulita egoten dira. Hiri batzuetan jatorrizko bertsioak ikusteko aukera egoten da, bertsio komertzialak ikusteko baino askoz urriago bada ere. Gai honetan ez dago inolako adostasunik. Batzuen iritziz filmak jatorrizko bertsioetan ikusi behar dira; beste batzuen ikuspegitik, berriz, itzulita. Bai batzuek eta bai besteek argudioak dituzte nor bere ikuspegia babesteko. Jatorrizko bertsioen alde dauden argudio ohikoena hauxe da: jatorrizko bertsioan hizkuntza batek dituen aberastasuna eta ñabardurak jasotzen direla, eta gainera aktoreen ahotsak entzun eta goxatu egin daitezkeela. Itzulpenen alde daudenek, berriz, hauxe esaten dute: batetik, film bat ikusterakoan ez dela gauza atsegina elkarriketak irakurri behar izatea, bestetik, irakurtzen ari garen bitartean irudiek eskaintzen duten hainbat informazio sarri galtzen dugula. Eta hori gutxi balitz, irakurtzera ematen zaiguna elkarriketen laburpena baino ez dela. Hortaz, ahozko hizkuntzaren aberastasuna galdu egin da idatzitako testuen eruz. Zer bide hartu behar dugu ikuspegi hauek kontuan hartuta? Zalantzarik gabe bakoitzak bere gustukoari jarraitu beharko lioke. Azken finean honen atzean ezkutaturik dagoena bakoitzaren konpetentzia linguistikoa da. Zenbat eta hizkuntza gehiago ulertu, hainbat eta hobe, baina inolako zalantzarik gabe, zazpigarren artea ikusteko eta entzuteko sortuta dago, eta azpituiluek halabeharrez sortutako gauza dira. 4

Filmak euskaraz, noizko?

Euskal Herriko zinema-areto komertzialetan euskarazko pelikula gitxi estreinatzen da

Abuztuaren 29an *Doraemon eta maien inperioa* estreinatu zen EAEko bost zinema-aretotan bakarrik (horietako bat, Getxokoa). Garbi dago euskarazko film gitxi ematen direla Euskal Herrian, eta estreinatzen diren apurrak umeentzat daude zuzenduta gehienbat. Hori zergatik gertatzen den galdetu diogu “Euskara zinema-aretoetara” lelopean duela hamar urte sortu zen Tinko Euskara Elkartearen presidente Marian Galarragari.

«Helduek ez daukate euskarazko pelikulak ikusteko ohiturarik»

Multinazional erraldoiek (Disney, Warner, UIP edo Columbia) ez dute ezer jakin gura euskaraz; “euren politika da, beraz politika ere sartzan da tartean. Hori garbi daukagu”. Bestalde, kostu berdina dauka film bat euskaraz edo gaztelaniaz bikoizteak, “baina aretoetara euskarazko kopia gitxi banatzen direnez, horiek amortizatzea ia ezinezkoa da”. Galarragak azaldu digunez, helduek ez ei daukate ohiturarik pelikulak euskaraz ikusteko, “nahia-



Doraemon eta maien inperioa filma

go dute gaztelaniaz ikustea, oso euskalduna edo euskalzalea izan arren”.

Euskarazko bertsioen emanaldiak bermatzeko, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen ditu 1998az geroztik, pelikula horiek zinema-areto komertzialetan estreinatu ahal izateko; lege horren baldintzen arabera, filmak aldi berean estreinatu behar dira EAEko hiru hiriburuetan, gaztelaniaz eta euskaraz, edo euskara hutsean: “ikuslerik ez dagoenez, diru-laguntzak ematen dira”. Hain zuzen ere, eta Marian Galarragaren berbetan, ikusleen esku dago egoera horri konponbidea emotea: “Ez badira euskarazko pelikulak ikustera joaten, jai daukagu”. m

Ez galdu > “Respiro”



Film interesgarri eta erakargarri honen zuzendaria Emanuele Crialesi da. Hau du bigarren luzemetraia; lehenengoarekin, “Behin atzerritarrak izan ginen” (1998), Sundance zine jaialdi ospetsuan parte hartzen lehenengo zine zuzendari italiarra izan zen. “Atsedenaldea” iazko Donostiako Nazioarteko Zinemaldian eman zen, Beste Zinemaldiaren Perlak deitutako esparruan, Zabaltegiaren barnean. Emanuele Crialesiek filma zuzentzeaz gain gidoia ere idatzi zuen. Kontatzen duen istorioa drama bat da, barneko sentimenduz eta ikutu magikoaz apaindua. Drama hau Siciliako uharte txikitxo batean kokaturik dago: protagonista etxekoandre berezi bat da, askatasunaren indarrak bete. Arrantzalea du senarra, eta hiru seme ditu. Herriko jendeak ez du bera ulertzen, ezta onartzen ere. Lan honen bidez Atsedenaldea-ren zuzendaria garai batean italiar filmek izan zuten miresmena berreskuratzen saiatzen da.

Argazkian, Emanuele Crialesi zinema zuzendaria

Burutik kendu ezinik

Zer eduki behar du udako kanta batek arrakasta lortzeko? Hona hemen aurtengoak

Gorrotatzen ditugula diogu, baina “beroa gehi jaiak” batzeari esker, denok abesten eta dantzatzen ditugu zoroen pare: udako abestiak dira. Datorren urtean arrakasta, dirua eta ospea eduki gura badituzue, hona hemen udako kanta “on” batek izan behar dituen baldintzak: lelo gogoraeraza, haurrek zein agureek dantza ditzaketen mugimendu erraz batzuk, eta sasoiari dagokion gairen bat (eguzkia, hondartza, beroa)... eta lizunkeriaren bat tartean badago, hobeto.

«Papi chulo izan daiteke 2003ko udan gehien entzun den abestia»

Baldintzok ondo bete dituzte aurtengo udako abestiek. Horietako asko iragarrien musika izan dira: Tanga Girls-en *Mais que nada*, Lunae-ren *Hipnotizadas*, Piercing-en *Boogie boogie*, eta ONCEn kanpaina originalaren *Tapitas*, *Cremita* edo *Medusa del amor* (udako kanten parodiak). Telebistatik ateratako pertsonaia batzuek ere pagotxa eduki dute: Malena Graciaren *Loca*, Sex Bomb-en *Ven ven* edo Dinioren *Haciendo el amor* (zerbait



Uda bat Georgie Dann barik? Ezinezkoa

esan behar da sasi-kanta horretaz?). Argi ez badago ere, *Papi chulo* izan daiteke gehien entzun den abestia, baina arazo bat sortu zaigu egile “meritua” norena izan den erabakitzeke orduan, hiru taldek abestu izan dute-eta: Adonay, Lorna eta La Fiesta.

Aurrekoak ikusi eta entzun ostean, La Banda del Capitán Canalla taldearen eskariagaz bat egiten dugu: *Qué vuelva Georgie Dann*. Horiek guztiak izan dira aurtengoak; orain, ekaitz ostean ezialdia dator. Datorren urtean, gehiago. Hobeto? Batek daki. m

Diskoa > Urrian

kaleratuko du lan berria Ruper Ordorikak

Laster urte bi beteko dira Ruper Ordorikak *Hurrengo goizean* izenburuko diskoa kaleratu zuenetik; horren ostean, Oñatiko abeslariak hainbat kontzertu eskaini zuen Mugalaris taldeagaz batera. Baina azken hilabeteotan zuzeneko emanaldiak alde batera utzi ditu apur bat, eta konposizio lanetan eta abestiak sortzen ibili da. Orain, Nafarroako Azkarate herriko Argiñenea Etxeko estudioetan sartuta dabil disko berri bat grabatzen. Metak diskoetxetik azaldu digutenez, urriaren erdialdean kaleratuko da; izenburua, zenbat kanta dituen eta zein musikarik parte hartu duen ez dute ezagutaraztera eman, bakarrik Jonan Ordorika dela grabazioaren teknikaria. Abian dagoen diskoa Ruperren bederatzigarrena izango da, bildumak eta Hiru Truku hirukotean egin zituenak kontuan hartzen ez baditugu.

Ruper Ordorika



diskoak

K
Kepa Junkera
EMI



Aurtengo martxoan Errekaldeko trikitilari handiak kontzertu bi eman zituen Bilboko Arriaga Antzokian, zuzeneko disko bat grabatzeko. Dagoeneko ailegatu zaigu bikoitza den CDa, 19 abestigaz. Bertan Junkeraren arrakastarik handienak entzun daitezke, baita abesti berri bi ere; horien artean *Herrik shaw*, lehen singlea.

How the west was won
Led Zeppelin
Atlantic



Rockaren historian eragin handiena izan duen taldeak zuzeneko lan bakarra zeukan, *The songs remain the same*. 30 urte igaro behar izan dira Jimmy Page gitarra-jolea art-xiboetan arakatzeko hasteko, eta hona hemen emaitza: 58 abesti dauzkan CD hirukoitza, taldearen historia osoa hartzen duena, eta zuzeneko indar guztiagaz.

Qué tiene esta bola?
Batzuen artean
Subterfuge Records



Ikusi genuenok oraindik ez dugu ahaztu *La bola de cristal* saioa, telebistatik eman duen programarik mitikoena. Bertan, musikak bere tokia zuen, eta 80. hamarkadako Espainiako pop-aren izenik garrantzitsuenak ibili ziren (Alaska, Loquillo, Kiko Veneno...). Denak 30 abesti dituen CD bikoitz honetan daude.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (IV)
Harakiria

2003ko iraila. Amaitu dira udako oporrak, eta berehala hasi gara negukoetan pentsatzen. Zer egingo diogu, bada! Horrelakoa da giza adimena. Duela hilabetetik ikusten ez genituen lagunekin elkartu gara. Oroigarri bat daukate guretzat. Alemanian egon dira aurten, eta, agian horregatik, albiste batekin gogoratu naiz. 2006an Berlingo harresiaren 45. urtemuga izango dela, eta, hain zuzen, Munduko Futbol Txapelketa hantxe antolatuko dutela aprobetxatuta, artista batek harresia berriro eraikitzea proposatu du. "Berrogei urte hura botatzeko, eta orain hau!", pentsatuko zuten urte gogor haiek bizi zituztenek. Artistak ez du inor mindu nahi. Mugen gaineko gogoeta eragitea da bere helburua. Batzuk, fisikoak, aise apurtu daitezke. Baina beste batzuk -hain agerikoak ez direnak- desagertarazteko, borondatea baino askoz gehiago behar da. Azken horiek, tamalez, edonon aurki daitezke: politikan, gizartean, kulturean, ekonomian.

Yukio Mishima Japoniako egile handienetako bat izan zen. Antzerkia zein literatura jorratu zituen. Ooren gainetik, tradizioa maite zuen. Teknologia eta makroekonomiak hiltzorian utzi zuten kabukiaren eta pagoden tradizioa. Berak inork baino lehenago ikusi zituen inguruan hazten ari ziren hesiak. Hain agerikoak ez diren horiek. Ez zuen beste irtenbiderik ikusi. Harakiria eginda bere buruaz beste egin zuen. Antzina ohorea gorde nahi zuten gudarien antzera. 4

Irakurzaleen txokoa

Puntako euskal idazleak hizlari arituko dira Getxon Bizarra Lepoan elkartearen eskutik

Getxoko Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatzen duen Irakurzaleen Txokoa izeneko ekimenak laugarren ikasturtea beteko du laster. Gonbidatu duten lehenengo idazlea Hasier Etxeberria da, *Eulien bazka* liburu berriaz mintzatzeko; ekitaldia urriaren 8an, ohiko orduan (arratsaldeko 19:30ean) eta ohiko tokian (Itsasgane Etxean) izango da. "Irakurzaleen Txokoa hileko lehenengo eguaztetenan egiten dugu, eta edonor joan daiteke bertara", diño Algortan bizi den Josu Esnaola elgoibartarrak; bera da Leioako Udaleko euskara tek-



Etxeberriak bere azken lana aurkeztuko du urriaren 8an

nikaria, eta ekimen horren koordinatzailea ere bada.

Euskarazko liburuak eta idazleak ezagutaraztea, literatur zaletasuna sustatzea, eta batez ere, jendea euskaraz irakurtzera bultzatzea dira txokoaren helburu nagusiak. Esnaolaren berbetan, "euskal literaturako izenik 'potoloenak' ekartzan ditugu bertora euren liburuez berba egiteko: *Atxaga, Saizarbitoria, Lertxundi...*" Geroari begira, Miren Agur Meabe eta Ane Urkiza gonbidatzeko asmoa daukate. Irakurzaleen Txokoan 22 lagun izena emanda dauden arren, "10 edo 12 hurbildu obi dira ekitaldietara; dena den, partehartzaileen kopurua idazlearen izenaren arabera dago", diosku Josu Esnaolak.


Bestalde, Bizarra Lepoan-ek literatur tailer bat antolatu du lehenengoz. 20 orduko iraupena edukiko du, eta Laura Mintegi izango da irakaslea: "Lizarrako idazleak aurten emango duen ikastaro bakarrari ikuspegi praktikoa emango dio". Martitzetan izango da tailerra, urriaren 14tik abenduaren 16a arte. Argibide gehiago 94 491 43 57 telefonoan. m

liburuak



Ugerra eta kedarra
Sonia Gonzalez
Txalaparta

Bilbo ugerra jaten duen zerraldo erraldoia da. Kat protagonistak tabernetako giroa maiteago du etxean fipatzen geratzea baino. Telebista ikusi, erre, edan, masturbatu eta eguna beste barik joaten uzten du Katek.



Arnasa galduaren ondarea
Pello Otxoteko
Elkar

Irunen jaiotako irakaslearen hirugarren poema-liburua dugu honokoa. Bertoko olerkirik politenak *Aribanteak* dauka izenburua. Bizitako denboraz eta heriotzaren kezka ere egiten ditu gogoetak.

Getxo Irratia >

Hurbileko uhinak

Programazioan berritasunik ez egon arren, estudioak lekuz aldatuko dituzte

"Ikasturte honetarako ez dago programazioan aldaketak egiteko asmorik", Getxo Irratiko arduradunek azaldu digutenez; baina hala ere, nobedade garrantzitsu bat iragarri digute: laster, Urgull kalean dauden estudioek egoitza berria izango dute, Martikoenako udal eraikinean, hain zuzen. Izan ere, "Urgullen babestutako etxebizitzak eta Algortako Nagusien Etxea ipiniko dira, auzune horretan dagoen eskaerari erantzuna emateko".

«Udal-irradiaren egoitza berria Martikoenako eraikinean paratuko dute»

Getxo Irratiaren programazioa (FMko 87.6an) goizeko 7etan hasi eta arratsaldeko 15etan amaitzen da, "ordu horretan, *Euskadi Irratiagaz bat egiten dugu*". Berezko zortzi ordu horietan, herriko albisteak ematen dituzte batez ere, "baina bertoko kiroletan espezializatu gara, eta partidak zuzenean ematen ditugu"; kalitatezko musika ere badute. Programazio osoa osatzeko, lau kazetarik dihardute: "Irratiko lanak kazetaritzaren beste behar batzukaz



Esatariak aginduak ematen teknikariari

tartekatzen dituzte: *buletinak eta prentsa oharrik idatzi, besteak beste*"; halaber, hiru teknikari ere badaude, eta asteburuetan beste lantalde bat dabil. Eta horien osagarri, kiroletako saioak ekoizten laguntzen duen enpresa batek eta musikako kritikak egiten dituen adituak ere euren ekarria egiten dute. Irrati honen helburu nagusietako bi Udala getxoztarrei hurbiltzea eta bertoko albisteak euskarri izatea dira. Bere uhinek ez ei daukate mugarik: "Inguruko herriez gain, Kantabriako zenbait tokitara ailegatzen gara itsasoz, eta barrualdetik, berriz, *Eibarreraino ere heltzen da gure seinalea*", Getxo Irratitik adierazi digutenez. m

Ikusi >

Umezain (ETB1)

Euskal Telebistak "Umezain" izeneko saioa abuztuaren 28an estreinatu zuen. Bertan, bi pertsonaia ospetsuk 4 eta 11 urte arteko haurrak zaintzeko trebezia erakutsi behar dute; hau da, "kanguro" lana egin behar izaten dute. Eguenero, 21:35etik aurrera, aski ezagunak diren bi lagunek erronka horri zelan erantzuten dioten ikusteko parada dute ETB1eko ikusleek. Bi familiatako umeen ardura izango dute egun oso batez "Umezain" programaren protagonista "ausartek". Saioaren arduradunen berbetan, "ez da lehiaketa bat, saririk ez dagoelako. Pertsonaia famatuak haurrak zaintzen zelan moldatzen diren erakustea da oinarri nagusia".

Irakurri >

Kalegats



lazko abenduan argitaratu zen lehen aldiz Kalegats, Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) bultzatuta literaturaz diharduen argitalpentxo. Sei hilabeteetan behin argitaratzen da, eta beraz, zenbaki bi baino ez dituzte kalerratu momentuz. EIEko kide batek adierazi digunez, "dohainik eta Euskal Herri osoan banatzen da", baina Hegoaldean askoz zabalkunde handiagoa dauka (ohi denez). Lehen zenbakian Unai Elorriagari egin zioten elkarizketa, eta bigarrean Anjel Lertxundiri. Gainera, liburugintza eta literaturagaz zerikusia daukaten hainbat gai jorratzen dituzte. Ekainekoan, esaterako, euskarazko saiakeraz jardun zuten.

Harremanetarako: 943 27 69 99

uhinakFM

Getxo Irratia87.6
Koska Irratia89.8
Radio Euskadi92.4
Euskadi Gaztea94.7
Bilbo Hiria Irratia96.0
Tas-Tas Irratia97.0
eitb irratia100.1
Bizkaia Irratia102.6
Euskadi Irratia104.4
Pititako Irratia107.0

Gure espezieak >

Apo arrunta



- **Izen generikoa:** Bufo bufo
- **Izen arrunta:** Apo arrunta
- **Berezitasunak:** 20 cm-ko luzera
- **Bizilekua:** Landak eta hezeguneak

Aporik ugariena eta handiena da apo arrunta. Gorpuzkerak sendotasun itxura ematen dio, burua txikerra eduki arren. Bizkarra marroi kolorekoa duen anfibio honek beste berezitasun bi dauzka: emea arra baino handiagoa da, eta begiak elipse formakoak dauzkate (arrek zein emeek), begi-nini bertikalakaz.

«Apo eme batek 2.000 eta 7.000 arrautza bitartean ipintzen ditu»

Gainontzeko anfibioak bezala, apo arruntak ikusteko unerik aproposenak hezetan handiko gau epelak dira, udako ekaitzen ostean, batez ere. Erraz aurki daitezke Larrañazubiko harana zeharkatzen duen bidean edo Andra Mari aldean dauden estartetan; baina zoritxarrez, Larrañazubiko inguru horietan autoen gurpilpean amaitzen dute askok udaberriko gau hezeetan.

Urtero, araldiaren sasoiari, jaiotzen diren ur-leku berberetara joateko ohitura daukate. Arrak izaten dira lehenak ailegatzen, eta orduan hasten dira emeei deitzen, baina horiek apo handiek egiten duten korrokei bakarrik erreparatzen diete. Hautaketaren ostean, arrak gogor itsasten dira emeen besapeetara, eta han egunak eman ditzakete, "bikotekideek" 2.000-7.000 arrautza beltz ipintzen dituzten arte behintzat.

Apo arrunta oso mesedegarria da nekazaritzarako, intsektu, zizare eta barraskilo asko jaten ditu-eta ia etengabe.

Gaia > argi-kutsadura

Gaua ostu digute

Gehiegizko argi artifizialak, **astronomoen lana** zailtzeaz gain, arazoak dakartzio hainbat espezieri

Argiak ere kutsatu egiten du. Gauero pizten ditugun milaka farolen argiaren zati handi batek atmosferarako bidea hartzen du, zolu edo hormen kontra islatuta edo zuzenean (globo itxurako farolen argiaren %50ek hala egiten du ihes, esaterako), eta airean dauden aerosol eta hauts-partikulak jotzean, zeruaren kolorea aldatzen du. Hori dela eta, hiri handietako biztanleek ezin dute populatu gabeko gunetakoek bezain ondo gozatu unibertsoak gauero eskaintzen duen ikuskizunaz.

Fenomenoari argi-kutsadura izena eman zaio, eta igarri zuten lehenengoak gauze zerura begira egoten direnak izan ziren: astronomoak.

Zenbait ikerketak frogatu dutenez, ordea, arazoa urruneko izarrak ezin behatzea baino larriagoa da. Edu Rodríguez Bizkaiko Astronomia Elkartearen kideak dioskunez, *"alperrik galtzen den argia berririko ekoiztu behar du industriak, eta horrek CO₂ igorpenak handitzea dakar"*. Argi publiko egokiak erabiliz, igorpen horiek zeharo murriztuko liritekeela adierazi du Rodríguezek. Bes-

talde, gehiegizko argiak animalien jokamoldeei eragiten die: hainbat intsektu espeziek ugalketa arazoak edukiten dituzte farola asko dauden inguruetan, eta hegazti migratzaileei ere noraeza sortzen die gauze hiri handi baten gaineratik igarotzeak, adibide batzuk aipatzearen. Azken boladan, argi-kutsadurak gizakion portaeran dauzkan eraginak aztertzen dabilta zenbait ikerlari. m



Arantxa Iurre > Getxoko Antzerki Eskolako zuzendaria

“Ez dut uste antzerkirik gabeko gizarterik egon daitekeenik”



“Antzerkiarekiko interesari eutsi dioten bakarrak, urtetan eta urtetan, emakumeak izan dira”

Kazetaritza-ikasketak dauzka, eta lanbidean ere jardun zuen tarte labur batez, zoriotsu egiten zuena antzerkia zela erabaki arte. Arantxa Iurre hiru urte daroaz Getxoko Antzerki Eskolako zuzendari, eta askoz gehiago aktore lanetan. Eta horretan datza, hain zuzen, Eskolako zeregin nagusia: aktoreak hezitzean, bai profesionalak, bai besterik gabe beren aisialdian antzeztokian zelan jardun ikasi gura dutenak.

—Aktoreak bakarrik hezitzen dituzue?

—Argi-teknikariak hezitzen ere bagabiltza: iaz hasi ginen. Izan ere, Euskadin ez dago antzerki-sarerik, dena dago sortzeke. Eskari handia dago antzerki taldeen alde-tik, baina ez dago hezitutako teknikaririk. —Antzerki-sarerik ez dagoela diozu. Baina badaude taldeak, eta aktoreak.

—Bai, gehien dagoena aktoreak dira. Sarea diodanean, esan gura dut ez dagoela heziketarik zuzendaritzan, ez eta dramaturgijan. Ez dago azpiegiturarik, babesa

emango duen ezer. Ez dago eszenografia-lantegirik, ez dago janzkera-tailerrik. Euskadin lan horietan diharduten pertsona bat edo bi besterik ez daude, eta talde guztiok jo behar dugu horiengana.

—Zuk 20 urte daroazu eskolan, abiatu zenetik, beraz. Orduko helburuak eta gaur egungoak berdina dira?

—Ez. Krisialdia egon zen 1996an. Orduan beste zuzendari bat zegoen, eta eskolaren izaerari buruzko ideiak oso bestelakoak ziren. Guk, zuzendaritza hartu

genuenean, handinahirik gabeko eskola egitea pentsatu genuen; gobernuak bete ez duen hutsunea betetzen ari gara, baina gure erara. Ez gara aparatu burokratikoak, eta ez dugu izan gura. Irakasleak funtzionarioak badira, oso zaila da guk egin nahi dugun eskola mota egitea.

—Edozelan, zein da helburu nagusia? Aktore profesionalak sortzea?

—Euskadik aktore hezituak edukitea.

«Euskadin ez dago antzerkiriko tradiziorik»

Niretzat hori da garrantzitsua. Uste dut Katalunian antzerki ona dagoela eta Euskadin ez. Ez okerragoak garelako, antzerkiriko tradiziorik ez dagoelako baizik. Hutsune bat daukagu betetzeko, eta guk dagoeneko sei promozio atera ditugu. Beraz, 40 aktore inguru. Eta horiek dira Euskadin lau urteko hezkuntza jaso duten lehen aktoreak.

—Tradizio eza aipatu duzu. Zergatik?

—Beti eduki dut horretaz ikertzeko gogo. Uste dut euskaldunok gehiago jo dugula beste bide batzuetatik (musikatik-eta) antzerkitik baino. Antzerkiarekiko interesari eutsi dioten bakarrak, urtetan eta urtetan, emakumeak izan dira, eta haiek sortutako taldeak.

—Baina, gustatzen zaigu antzerkia? Badago ikuslerik?

—Ez. Tradiziorik ez badago, zergatik gustatu behar zaigu? Dena dela, gero eta gehiago ikusten da. Ez dut uste antzerkirik gabeko gizarterik egon daitekeenik; antzerkia katarsia da, norbera islatuta ikusteko modu bat, eta beharrezkoa da. Baina jakina, existitzen dela jakin behar da, bestela, zertarako edukiko dugu haren beharrik? m



Basolanak

• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Gogoia >

Oporrak amaitzearen depresioa

Nagore Etxebarri psikologoa

Urtero, garai hauetan, depresioan erortzen gara denok, oporrak amaitu zaizkigulako. Baina erakuts dezagun geure frustraziorako gaitasuna sentimendu hori gainditzeko. Hasteko, jakin dezagun depresioa zer den. Gutxienez ezaugarri hauetako bostek agertu behar dute depresioa egoteko: gogo deprimitu edo suminkorra, ohiko jardueretan interesa eta atsegina galtzea, ohiko pisua era esanguratsuan galtzea edo irabaztea, lo gutxiago edo gehiago egitea, aktibitate psikomotorea areagotzea edo moteltzea, egunero energia eza somatzea, gutxiespen edo errudun sentimendu desegokiak izatea, pentsatzeko eta arreta jartzeko zailtasunak izatea, une oro zalantzi ibiltzea, eta heriotzari buruzko pentsamenduak behin eta berriz izatea. Gustuko ditugun hainbat gauza egiten ibili gara udan, eta sasoi horiek amaitu direla jakiteak tristetzen gaituen arren, ibil gaitezen osasuntsu eta kementsu, eta hel diezaiegun gozatzeko dauden aukera guztiei. 4



Gorputza > erredurak

Zer egin errez gero?

Eunate Sánchez erizaina

Temperatura altuko edozein sustantziak gorputza zuzenenan ukitzearen ondorioz sortzen den lesioa da erredura. Eragile ohikoak likido beroak, leherketak, sua, solido beroak, elektrizitatea edo agente kimikoak ditugu, eta beti, egin beharreko lehen gauza da erredura arina edo larria den zehaztu. Horretarako gehien erabiltzen den sailkapena 1., 2. eta 3. mailako erredurak bereizten dituen da. Horrez gain, erreduraren neurria, kokalekua, sakonera eta abar behatu behar dira, tratamendu egokia emango bazaio.

Edozelan, erredura bati egin beharreko



«Erredura batekin egin beharreko lehen gauza ur ugariz bustitzea da, erredura mota edozein dela ere»

lehen gauza ur ugariz bustitzea da. Hortik aurrera, tratamendua desberdina izango da larritasunaren arabera.

Erredura arinen kasuan, lesioa etxean bertan senda daiteke, ukendu topikoa erabiliz. Ondoren, gomendatzekoa izaten da erredura estaltzea, infekzioak eragozteko. Askotan kezkatzen gaituen gai bat da babekin zer egin. Handiegia ez badira eta gehiegi eragozten ez badigute, hoberena ez ikutzea izaten da. Likidoa ateratzea ez da ohitura ona.

Erredurak larriagoak direnean (min ematen duten baba handiak agertuz gero, edo erredurak azalaren zati handi bat kaltetu, edo elektrizitateak edo produktu kimikoek eragindako erredurak badira) osasun etxe batera joan behar da tratamendu egokia jaso ahal izateko.

Azkenik, gai honen gaineko gauza garrantzitsu bi aipatu gura nituzke:

- Erredurek oso erraz hartzen dituzte infekzioak, eta beraz, erabateko garbitasunez eta kontu handiz erabili behar dira.
- Edozein erredura mota dela ere, tetanoaren aurkako txertoa ematea gomendatzen da, txerto hau aurretik hartua ez dutenei behintzat. m

OSAE IDE? HORTZ? KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskualdea ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerria
ALGORTA



loreak mending
Saint Sébastien

Markaren pentsaera ondo baino hobeto adierazten duten irudi batzuk

Loreak Mending

Donostiatik datorren moda alaia

Loreak Mending izeneko marka 90. hamarkadaren hasieran sortu zen, gehienbat surfzaleei begira eginiko kamisetak ekoiztuz. Gaur egun, ordea, aukera zabalagoa eskaintzen digute, eta halako hiri-kutsu bat lortu dute.

Bilakaeran dauden gauza guztiek bezala, Loreak Mending-ek ez dio hazteari utzi: 1990ean egin zituzten lehengo kamisetak, eta orain ere horretan jarraitzen dute. Gaurko enpresa handiaren abiapuntua Donostiako horma eta txokoetan ikusten zen bitxilore baten marrazkia izan zen. Graffiti-ak kamisetetan ipintzen hasi ziren, eta handik urte gutxira, lore horrek oinarrian zuen ideiak denda forma hartu zuen: lehengo, Urgull mendiaren magalpean zabaldu zuten, Alde Zaharrean.

Hasieran, jertseak eta kamisetak egin zituzten, eta surflariak izan ohi ziren, gehienbat, bezeroak; gero, galtzetinak eta prakak diseinatzea erabaki zuten, eta konturatu orduko, Loreak Mending-ek bazuen bilduma oso bat. Harrezkerotik, proiektua finkatu egin da, eta mundua ere ikusi du: antipodetan, esaterako, badituzte denda bi (Australiako Melbourne hirian), eta las-

ter Ekialde Urrunean beste bat irekiko dute. Betiko surf zaletasunari begira, Loreak Mending-ek irailaren 11tik 13ra izan berri den *Surfilm* izeneko zinemaldia antolatu du. Horren aurretik, aurtengo Sónar eta PhotoEspaña ekitaldi entzutetsuen kamiseta ofizialak diseinatu ditu, eta Sigur Ros talde islandiarrentzako 50 aleko tirada egin zuen. Hori guztia eta zerbait gehiago da Loreak Mending: alaitasunez eta erabakitazunez, apurka-apurka hazten doan marka donostiarra. Gelditu barik. m

Loreak "munduan"

- 1995ean lehendabiziko denda ireki zuten sorterrian, **Donostian**.
- Jarraian, **Bilbo**, **Madril**, **Frantzia**, **Benelux** eta **Melbourne**-n hainbat zabaldu zituzten.
- 2004ko otsailan, **Tokion** paratuko dute denda bat.

I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

moda gaztea
opariak
VIRATI
Torre 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

01 SOPELNET S.L.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ordenagailuen salmenta zerbitzu teknikoak kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62 - Fax: 94 676

BILBO MICRO



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Klasekideen bila

Uribe Kostako ikastetxeetako ikasleek euren arteko harremana berreskura dezakete

“Noizean behin afaritxoren bat egingo dugu, ezta?”. Ikasketa guztietako bukaran esaldi bera errepikatzen da, klasean egindako lagunak sarri ikusiko ditugun esperantzaz. Baina gero eta tarte handiagoa sortzen da afarien artean, eta garai bateko lagun minen aztarnak galdu egiten dira azkenean. Arazo horretarako ere internet-ek badu erantzunik: *Mipasado.com*.

Nola aurkitu iraganeko klasekideak? Webgune horretan sartu (www.mipasado.com), zure posta elektronikoa idatzi eta ikastetxea aukeratu (bertan egon zinen ikasturtea ahaztu barik). Nahi izanez gero, lehengo eta gaurko argazkia eta gainontzeko datu pertsonalak ere jar ditzakezu, baina ez da derrigorrezkoa.



www.mipasado.com

Une horretatik aurrera nahi beste aldiz sartu ahal izango zara, bertan arakatzeko norik egin duen gauza bera, hau da, ikastetxe horretako zein ikasle dauden izena emanda. Dagoeneko uste baino ikasle gehiago dira zerbitzu honen erabiltzaile, eta beraz, ez da zaila antzineko kideak topatzea. Zorte on! m

webgida


HEGAZKINETAKO JAKIAK
www.airlinemeals.net

Nork bere perbertsioak ditu; beraz, egon egongo da hegazkinetan ematen duten janaria gustura jaten duenik ere. Eta sarean denontzako lekua dagoenez, hona hemen sortu duten webgunea. Ingelesean dago, baina erraz nabiga daiteke eskaintzen dituzten ehunka jakiren argazkietatik.

VIVISIMO
www.vivisimo.com

Sinisteko zaila bada ere, Google baino bilatzaile gehiago bada munduan. Honako hau, adibidez, emaitzak batu eta metatzen ditu, webgune asko errazago topatzeko. Lehengo bilaketa orokor bat egiten da, eta gero, emaitzen artean oso erraza da behar duguna bereiztea.

Sarean aurkitu dugu > Mr. Bean



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. aldizkaria@euskalnet.net

Ikasi euskara aekren euskaltegi eta barnetegietan.

EGA gaintzeko ikastaroak, hizkuntza eskakizunak eta enpresentzako ikastaro bereziak... nahi duzun ordutegian.

Aurten, bai esan?

Bai esan?

Matricúlate en www.aeknet.net
902 362 294

aek

¡díselo en euskara!

getxoko dendetan euskaraz lanean?

LAN

POLTSA BERRIA

GETXOKO MERKATARITZA SEKTOREAN LAN POLTSA OSATZEKO DEIA

Euskara Zerbitzuak, GEHI EUSKARA MERKATARITZARA egitasmoaren barruan, 2.500 euroko dirulaguntza eskaintzen die euskara ikastera doazen merkatariei euren ordez denda atenditzeko pertsona euskaradun bat kontratatzen badute.

Horretarako, BEHARGINTZA Enplegu zentroak LAN POLTSA osatu nahi du herriko denda eta establezimenduetan lan egiteko prest dauden pertsonekin. Lan poltsa hori merkatarien esku ipiniko da, “GEHI EUSKARA MERKATARITZARA” programak eskatzen dien ordezkia kontratatzea errazteko helburuarekin.

Beraz, euskaraz badakizu eta Getxoko merkataritza sektorean lan egin nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan.

BEHARGINTZA ENPLEGU ETA EKONOMIA GARAPENERAKO ZENTROA
San Martin kalea 17 / Tel.: 94 466 01 40 / Faxe: 94 466 01 49 / behargintza@getxo.net

9E+T EUSKARA MERKATARITZARA

Behargintza Enplegu eta Ekonomia Garapenerako Zentroa

Euskara zerbitzua

GETXOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE GETXO

ALBE alerik ale

Argitasuna eta kemena bat eginda

Trino Azkoitia > Sekula agortuko ez den bertso iturria

Azkoitiar batek zabaldu zuen bidea, eta bera dugu eskolako arima, betiko habea. Ez du inoiz hautsiko Trinok gurekiko lokarria, eta Algortako Bertsolari Eskolaren izenean, ozen egin behar dugu haren aldeko aldarria.

Testua: **Josu Arroyo**
Argazkia: **Asier Mentxaka**



«Inor aipatzekotan, Andoni Iriondo eskolako sortzailea aipatuko nuke, bere umorea eta esperientzia»

—Noiz eta nola hartu zuen lur Trinok ALBEn?

—Bertsozalea beti izan naiz, txikitatik. 1980 inguruan poz handiz enteratu nintzen bazela bertsolari eskola bat Santutxun, eta bertan sartu nintzen, eta urte berean Amurizak Bilbon eman zuen ikastaro batean ere parte hartu nuen. Oso atsegina izan zen esperientzia eta talde batek erabaki genuen Algortan ere biltzen hastea, eta hortik sortu zen Algortako Bertsolari Eskola.

—20 urtetik gora eskolan.... Urteotatik zein une azpimarratuko zenituzke? Eta zein izen?

—Niretzat benetan aro polita, benetan gozatu nuena, hasierakoa izan zen. Hamabost inguruko talde polit bat osatu genuen, gazte jendea gehienbat, eta talde bezala bertsoa deskubritu genuen. Ederra izan zen deskubrimendua, eta leku guztietan saiatzen ginen bera zabaltzen. Urte horietako inor azpimarratzekotan, urtetan aurrera joana izan arren, inoiz zahartu ez zen Andoni Iriondo aipatuko nuke. Eskolako sortzailea izan zen eta bere umoreak eta esperientziak asko lagundu zuen eskola gorpuzten. Bigarren fase batean, Joseba Santxo aipatu beharra dago. Berari

dagokio helduen dinamikari eutsi eta bertsoaren arnasa inguruko umeen eskola guztietara zabaldu izana. Egungo eskolak, berriz, izendun bertsolariak ditu alde batetik, eta bestetik hasierako deskubrimendu-ilusio hura gordetzen du. Kanpotik eskolaren lagun bezala hiru izen aipatuko nituzke: Amuriza, Lopategi eta Isidro.

—Zer da zehazki «Trinoren eskola» famatua?

—Ez dut uste «Trinoren Eskola» berezirik dagoenik. Nire ustez, bizi naizen herri honetan bertsoa eta Bertsolari Eskola ondo pasatzeko eta euskara zabaltzeko tresna

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Trino Azkoitia Azpitarte.
- ▶ 1946ko ekainaren 16an Azkoitian jaioa.
- ▶ Aspalditik Getxon bizi da.
- ▶ Filosofia ikasketak egin ditu.
- ▶ Gaur egun, agente komertziala da.
- ▶ ALBEko zuzendaria dugu.

ALBEKO GAZTETXOEI

Bertsogaztetxoa: **Trino Azkoitia**
Doinua: **Zortziko nagusiko edozein**

1

Agurtzen zaitut, neska-mutiko,
bertso eskolan hazia,
agur ta gora zuen arteko
giro alai berezia.
Harritzekoa ta pozgarria
zuen gogo ta grazia;
lur xamurrean jausi zen, nonbait,
guk botatako hazia.

2

Hogei bat urte badira ia
benetan edo itxuran,
eskola sortu ta hasi ginela
bertsoa zabaldu guran.
Orain ikusiz gazteon martxa
ordukoaren loturan,
iruditzen zait nere bizitzan
zerbait egin ote dudana.

3

Erdal gune bat euskalgirotzen
umoretsu eta alai,
eskolak hortan jarrai dezala,
besterik ez genuke nahi.
Zuek zarete gure geroa,
gure beroa ere bai;
holako gero bero batekin
lo egin liteke lasai.

HIRU LERROAN

“Eskola oso neure sentitzen dut, seme bat bailitzan, eta daraman martxa ikusita oso harro sentitzen naiz”

bat dira. Bertsoak batetik «hitzaren jokoa» eta bestetik «hitzaren jolasa» ere izan behar du. Jokoak kalitatea behar du, jolasak ez derrigor. Nik uste dut eskoletan jolasa oso inportantea dela. Bertso jolasaren bitartez batzuk bertso jokora, kalitate-ra, helduko dira, baina denek pasatuko dute ondo eta bertsoa maiteko. Eskolako bati gerta dakiokkeen txarrena bertso txarra botatzeari beldur izatea da. Bertso onik ezin bota eta bertso txarrik bota nahi ez... kित्तो! Horrek ez du sekula aurrera egingo.

—Trino bertsolaria, epailea, bertsozalea... Definitu bakoitza labur:

—Bertsolari bezala garai batean ausartagoak ginen (Andoni zenarekin milaka bertso saiotan izandakoa naiz) eta gure inguruan zegoenak esan beharko bertsolariak ginela, isildu ere egiten ez ginen eta. Orain ere hala aritzen gara lagunartean nor egurturik topatzen dugunean. Baina nik esango nuke bertsolari ofiziala sekula ez naizela izan. Epaile bezala beti saiatu naiz neutrala eta ausarta izaten. Benetan

ausarta! Gogoratu garai berriko lehenengo Euskal Herriko txapelketa hartan... notak gora jasota erakutsi behar izan genituenean! Ez da erraza; arauak hor daude, baina bertsoaren oso zati txiki bat sar daiteke arauen barruan... Bertsoak zuregan sortzen duen sentsazioa... hori zaila da arautatik sortaraztea. Bertsozale bezala bertso onak entzutea gustatzen zait, eta badago non entzunik!

—Zein leku betetzen du Eskolak egun zure bizitzan?

Zoritxarrez, dedikazioz oso gutxi. Lana dela medio eskolako orduetan ezin izaten dut parte hartu. Eskolaren martxari buruz jakinaren gainean egoten naiz. Eskolaren izenean inoiz aurpegia eman behar baldin bada ere, beti han izaten naiz. Dena dela, eskola oso neure sentitzen dut, seme bat bailitzan, eta daraman martxa ikusita oso harro sentitzen naiz.

Eta gu ere oso harro sentitzen gara Trinok eskolaren alde egindako lanaz, ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula jaiotzaz gipuz-

koar baina bihotzez gero eta bizkaitarrago den gizon apal honek eman diguna. Ez pentsa, ordea, Trino egindakoaz konforme geratu denik, bera ezagututa, oraindik ere zer erakutsia eta zer emana izango baitu! Irakurri, bestela, eskolako gaztetxoei jarri dizkien bertso ederrak. m

BERTSOAGENDA

GETXO BERTSOZ JAIRIK JAI
Irailak 20, 19:30ean

Areetako Eskoletako plazan
Bertsolariak: Jon Maia, Fredi Paia eta Aitzol de Kastro
Gaijartzailea: Nahikari Ayo

Gogoratu ALBEko web orrian
bertso agenda gaurkotua duzuela:
www.albegetxo.net

Gramatika apurtxu bat

Udaren amaiera dator, eta horregaz batera askok kurtso berria hasi behar dute. Guk ere, ikasteko ohitura hartu eta teoria apurtxu bat ikusiko dugu. Lehenengo, bertoko euskeran artikularen erabilera aztertuko dugu. Ondoren, juntagailu batzuen gainean egingo dogu berba.

Testua: **Urtzi Iglesias**

Izen morfologia: artikularen erabilera

Mendebaleko euskararen gainerako barietateetan gertatzen den legez, bertoko euskeran ere, lexemei artikulua (-/, -a, -ak, -ok) eransten diegunean, aldaera batzuk gertatzen dira. Aldaerok diferentek dira lexema horien amaieraren arabera. Ondoko taulan argi ikus daiteke; bertan, bokalez eta kontsonatez amaitzen diren berbak ipini ditugu adibide legez:

<i>mugagabea</i>	<i>singularra</i>	<i>plurala</i>
...a + a		
alabá / neská	alabé / neské	alábak / néskak
...e + a		
semé / etzé	semé / etzé	sémek / étzek
...i + a		
errí / idí	errí / idí	érrik / ídik
...o + a		
astó / basó	astó / basó	ástok / bások
...u + a		
eskú / katú	eskú / katú	éskuk / kátuk
...ai + a		
arráin	arrañé	arrañek
...oi + a		
balkóí / koltxóí	balkoyá / koltxoyá	balkóyak / koltxóyak
...(kontsonante) + a		
gixón/lagún	gixoná/laguné	gixónak/lagúnek

Taulan ipini ditugun aldaerak hobeto ulertzeko eta praktikatzen has gaitzen, esaldi batzuk ikusiko ditugu orain (horren ondoan, batuaz esaten den moduan ere ipiniko dugu):

...a + a
Beste alkondare tzikiixuau da, alabe ibiltzen da orreaz. (Getxo)
 ‘beste alkondara txikiagoa da, alaba ibiltzen da horrekin (jantzita)’

...e + a
Etzakon gustaten, ze jente yoten san... (Urduliz)
 ‘ez zitzaion gustatzen, jendea joaten zen eta...’

...i + a
...etxe banaka bat, ze osten dana baserrik (Sopela)
 ‘...etxeren bat, bestela, denak ziren baserriak’

...o + a
Italianok ta morok be pasa ziren (Sopela)
 ‘Italiarrak eta mairuak ere pasatu ziren’

...u + a
Ez zan eoten ezeberez ordun (Sopela) ‘orduan ez zegoen ezer’

...(kontsonante) + a
Neure gizonak ez deko beharrik (Algorta)
 ‘nire gizonak ez dauka lanik’

Juntagailuak

Baie (baina)

Krieda ibil naz denpore gehienen, baie etzen eoten nintzenen, Plentziare yoten nintzen benedeje saltzen (Urduliz)
 ‘Neskame ibili naiz denbora gehienean, baina etxean egoten nintzenean, Plentziara joaten nintzen benedejea saltzera’

Osten (bestela)

Pandereteruk kanta iteu, osten... ez du konkurso baterako balio pandereteruk kanta itten ez badeu (Berango)
 ‘Panderoleak kanta egiten du, bestela... ez du konkurso baterako balio, kantatzen ez badu’

Ze (... eta)

Felisa! Ez yo ezebere ze nire semeak zuk baño hobeto yoten dau (Getxo) / ‘Felisa! Ez jo ezer, nire semeak zuk baino hobeto jotzen du eta’

Bere ez / be ez (ezta...ere)

Ez zan eoten kotzerik ez ezabez, bizikletarik bez (Sopela) / ‘Ez zegoen ez kotzerik ez ezer, ezta bizikletarik ere’

Gurberbake 26

ZELAN ESAN Zeozen barri emoteko

Testua: **Xabi Bilbao**

ZER ESAN ZEOZER KONTATEKO EDO BARRI BET EMOTEKO

Bákixu? Bákixu zer entzun dóten?
 Bákixu zer esan dáusten?
 Entzun dozu hau?
 Kargutu zara? / Kónturetu zara?

Erantzunek

Bai? Eztot entzun, ez.
 Bai? Oiñ éntzuten dot.

Bai, eztot yákingo ba!
 Bai, eztot éntzungo ba!

Zer? Seguru zauz (zagoz)?
 Zer? Ezta ixau (izango) égi!
 Kéba / kiá, hori éleite ixen!

Adibidek

- Entzun dozu zer diñon alkatek? Datorren urten iyen ingo dala kontribuziño.
- Hólantxe da bai, baia hori ezta gauza barri, ba! Ta gánera kóntu da...
- Itxédon, itxédon, ta gánera automóbillen zérge bere, inpuéstu, íyetako asmo daukela!
- Atarázuz kóntuk, honéaz hirúgarren bider da hori zérge íyetan dáudena hau alkate hasi zánetik.
- Bai, baia bákixue nik zer entzun doten? Etxek merketu ingo direzela Uribe Kosta duztin!
- Kiá, éleite ixen hori! Zuk amesatan iñ dozu.
- Baietz ba! Pentza lei pisu bárrik saldu eziñik dabiltezela, ta...
- Saldu eziñik? Eztotsut siñéstuten nik hori. Dirurik eztaule diñaude dának, baia hemen daná sáltzen da!

BERBALDIN ERDIN GAGOZELA, ZEOZER GEHITUTEKO

Eta gánera, hau eta hau...
 Itxédon, itxédon, eta gánera...
 Ta gíhau (gehiago) kóntakotsut.../
 gíhau ésangotsut...
 Ta égi éstateko,...

Erantzunek

Kóntu íxu (egizu) ...
 Atarázuz kóntuk, ...
 Hori bai dalá!

Hólantxe da, bai.
 Ondo diñozu.

Argi dau. / Garbi dau.

Bai? Eztait ba...! (ez dakit, ba)
 Eztotsut siñéstuten!
 Hori élei ixen! (ezin leike izan)



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
 BBK 2095 0121 10 9102483676
 sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5.
 bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Usoak saltsan

Hasteko, berakatzatza oliba oliotan ipini eta sutan jarri. Egiten denean berakatzatza baztertu eta irinetik pasatutako uso ondo lumatuak ipini aleak urreztatatu arte. Ondoren usoak atera eta olio berean barazkiak bota: porrua, azenarioa eta kipula. Su ahulean eduki dena ondo bigundu arte. Gero usoak atzera ipini lapikoan, eta segituan koñak txorrotada eder bat gehitu eta flanbeatu. Ondoren ardo beltza, txokolate zati bat eta espezieak norberaren gustura (erramua, ezkaia, intxaur muskatua...) bota. Hau guztia ordu erdiz eduki sutan. Saltsa egiteko, barazkiak-eta txinotik pasa eta kitto. Era honetara, usoak ezezik, eperrak, galeperrak eta hainbat hegazti presta daitezke. On egin! m

osagaiak (bi lagunentzat)

- lau uso • porru bat • azenario bi • tipula bi • lau berakatz ale • koñaka • botila erdi ardo beltz • txokolate zati bat • erramua •



itsaso arana / jolastoki-koa

Modazko ardoak

Gauza jakina da egiten ikusi duguna, geuk ere egiteko ohitura hartzen dugula. Ardoari dagokionez, etxeko nagusiei ospakizun berezietan, esaterako, Tondonia, Arana edo Aranza bat eskatzen dutela ikusi badugu, jeneralean gauza bera egingo dugu guk aurrerantzean. Baina ohiturari beste indar bat, berrikuntzaren indarra kontrajartzen zaio eta horrela gertatzen dira aldaketak. Ardota modarik bai? Ba, bai. Gaur egun modu askotara deitzen zaie modan dauden ardoei: egile ardoak (vinos de autor), izen handiko ardoak (vinos de alta expresión) edo sorterriko ardoak (vinos de terruño). Baina zer ezaugarri dute gaur egun modan dauden ardoek? Bereziki bat, ardo frantsesak imitatzen dituzte gehienek, hau da, taninoak erraz igartzen dira, gorpuzdunak, mazerazio luzekoak, egilearen ukitua bilatzen da, eskusibitea... Denak ere oso garestiak izaten dira, 30 eurotik gorakoak (Abadia de Retuerta, Artadi, Viña el Pisón, Pingus...).

Eta bigarren galdera hauze litzateke, zergatik gertatzen ari da hau? Ardo frantsesak izen handikoak dira eta mundu osoan edaten dira. Gauzak horrela, ardogile askok nazioarteko merkaturaren euren produktua kokatu ahal izateko era honetako ardoak eginez merkatu berri horietan sartzeko bide erraza ikusten dute. Bestetik esan beharra dago, bide hori jarraituta, ardo klonikoetarako bidea hartzen dela, hau da, denak antzekoak. m

Itxas-gane jatetxea

Itsasotik mahaira, zuzenean



Arantza Peña Itxas-ganeko jantokian


Barrikako Peña familiak denbora luzea daroa Itxas-gane jatetxean. "Nire gurasoak 40 urtez egon ziren, eta guk orain hiru daroaguz", diosku Arantzak, mutil lagunagaz batera gaur egun Itxas-ganeko bezeroak asetzear arduratzen den neskek.

Ez dute menurik ematen, karta baino ez, eta berezitasunik aipagarrienak (ezin zitekeen bestela izan itsasotik hain hurbil dagoen jatetxe honetan) arraina eta mariskoa dira. Arraina, gainera, Arantzaren nebak harrapatzen du, Plentzian daukan itsasontziagaz. Beharbada labean egindako txangurroa da bertaraten direnengan arrakastarik handiena lortzen duen jakia, Arantzak dioskunez.

Egunero eguerdiz eta guez ematen dute, atsedean hartzeko ixten dutenean izan ezik: neguan astelehen eta martitzenetan, eta udan, astelehenetan baino ez.

Karta izanik, ezin zehaztu otordu baten prezioa, baina bazkari edo afari normal bat 30 euroren bueltan egon daitekeela adierazi digu jantokian nahiz barran zerbitzari jarduten duen Arantza Peñak. Jantokiak 50 lagunentzako lekua dauka, eta ordutegia, eguerdikoko 1:30etatik 3:30ak arte eta arratsaldeko 8:30etatik gaueko 10:30ak arte. m

ITXAS-GANE JATETXEA
Bide Nagusia 11, Barrika
Telefona: 94 677 26 71



Asado r



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura

- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Guez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

SATISTEGI



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

Zurikaldai


JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik. Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13 GETXO
Telletxe 13 T: 460 02 88 ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 - Tlf.: 94 491 06 94
ALGORTA



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak
Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T.: 94 464 89 94 T.: 94 491 13 94

**VILLABOTAS
JATETXEA**



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina
T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Ireki zaitez pixka bat gehiago, Ura. Irtenbidea ez da zure kontu guztiak lau haizeetara zabaltzea, baina ez zaitez hainbeste itxi ere... neurririk ez daukazu eta! Lagunekin berba egiteak ondo egingo dizu.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Zer gertatzen zaizu? Azkenaldian oso sentibera zabilzta. Dena hartzen duzu txarrean. Ezin zaizu ezer esan, berehala haserretzen zara-eta. Lasaitu zaitez pixka bat, horrela jarraituz gero, nerbioetatik jota amaituko duzu.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Noiztik ez duzu ilepaindegi bat zapaldu? Bada garaia ezta? Daukazun itxura horrekin zelan gura duzu, ba, ligatu? Look aldaketa bat ez zaizu gaizki etorriko; baina look aldaketa horrek goitik beherakoa izan behar du, entzun?</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Hau marka! Bete eztabaidan zure bikote-kidearekin eta oraindik ez zara ohartu ika-mika horiek ez durela ezertarako balio. Ideia berriak dituen norbait ezagutuko duzu lanean, eta oso proposamen erakargarria egingo dizu.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Udazkenarekin batera, Cupido ere iritsiko da zure aldamenera. Bere geziak bete-betean harrapatuko zaituzte eta gure Hostoa txora-txora eginda geldituko zaigu. Aiiii, hainbeste esperon zenuen azukre koxkor hori...</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Batzuk ligatu gura eta ezin. Eta zuri, erlek ez tira bezala joaten zaizkizu eta gura ez! Zurea bai marka, batzuek hainbeste eta besteek hain gutxi. Baina hori bada zure desioa, segi horrela. Horretarako ere denbora izango duzu-eta.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Bihotzean daukazun hutsunea ezin dezakezu bete eta triste zaude, Garia. Baina ez burua hainbeste berotu gai horrekin. Bitartean, aprobezka itzazu bizitzak ematen dizkizun beste gauza batzuk.</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Ozpinduta zaude. Aurpegian ere nabaritzen zaizu hori, baina baita izaeran ere. Jasanezina zara eta horrek ondorioak izango ditu laster. Arazo horri irtenbidea eman behar diozu lehenbailehen.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Izan zaitez ausartagoa. Badakizu, bizitza honetan arriskatzen ez duenak ez du ezer lortzen. Zezenari adarretatik heldu eta egizu aspaldian egiteko gogoa duzun hori. Beldurra alde batera laga eta aurrera!</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Azkenaldian zu zara posta elektronikoko errege/erregina! Lanean zaudela ere txapa ederra ematen diezu lagunei, internet-en aurkitutako irudi lizun horiek bidaltzen. Zure adinarekin eta horrela ibili behar da gero, e?</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Zalantza betetik zaude eta erabaki bat hartzea lan gogorra da zuretzat. Behingoz bada ere, egoizu kasu zure bihotzari. Balantzak zer esaten dizu? Ba, horri egin kasu, zalantza barik gainera!</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Arazo horrek loa galeratzen dizu, Negua. Erantzuna zure esku dago, zuk uste baino gertuago, eta konponbidea ere erraza du. Gehiago itxaron baino lehen, egizu egin beharrekoa. Animo!</p>




mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamabi beltzune ditu.

Ezker eskuin

1. Zabalpen. 2. Aditzera emanak. 3. Zuk naramazu eta haiek Bat. 4. Bibliako lehen emakumea. Antzinako kalkulu-taula. 5. Tontor. Gela handi eta zabal. 6. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Bi ken bat. Zero. (Zah.) Zakur. 7. Merkataria. 8. Pertiako enperadorea. (Infin.) Ukitu. Iodoaren sinbolo kimikoa. 9. Kasik. Random Acces Memory. Atzizkia. 10. Erne! Inguru.

Goitik behera

1. Udal hautetsia. 2. Euskal lurraldea. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Nafarroako herria, Larraunen. Iodoa. 4. Ofizial turkiarra. Heldu naiz. 5. Tibeteko apez budista. Hizki grekoa. Euskal alderdi politikoa. 6. Arrain mota. Aldizkari hau. 7. Urteko sasoiak. Röntgen. 8. Haiei, nuke. Letoniako hiriburua. 9. Da. Iparraldean, mesedez. Indioa. 10. Eguzki. Oraindik.

Soluzioak

O	N	A	R	A	B	I	A	V			
N	I	G	M	R	A	R	I	A			
I			K	U	O	R	I	Z			
A			R	I	U	T	A	R	I		
R	O		O	B	A	T	B	O			
O	T		A	R	E	I	N	A			
O	K		A	B	A	B	A	E			
I			E	T	A	M	A	N			
A			R	A	G	A	R	I	A		
K											
D	E		N	D	E						

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n eguingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma
BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behea. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria



IRUDIA ALGORTAKO BOGA-BOGA TABERNAKO PEDROK UTZI DIGU

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Elorrioren jaiotako ilehori honek bost hizkuntza dakizki
- Arrasaten eman zituen lehen urratsak telebistan
- Bihotzeko albisteen aurpegi polita da aspalditik

> Aurrekoaren erantzuna: Jupp Heynckes
> Irabazlea: ***Jon Serrano**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47
Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

Bittor Egurrola

Algortako trainerilla Kontxan, 1971

Urte hartan Algortako trainerilla Bizkaiko txapelduna izan zen, eta horregatik egokitu zitzaion Kontxan egin zen Espainiako txapelketan lehiatzea. Estropada hartan hirugarren sailkatu ziren algortarrak; garaile, berriz, Pasai Donibaneakoak izan ziren.

1966an sortu zen Algortako arraun taldea. Garai hartan astero entrenatzen ziren eta gorputza trebatzera Arene kaleko Mezoren gimnasia joaten ziren. Taldeak gaur egun arte egin duen ibilbide luze eta oparoan kirol garairik onena 80ko hamarkadaren hasieran eduki zuen. m

Azaltzen direnak, ezkerretik eskuinera:

Iñaki Ardanza (patroia), Elortegi "Txiguiski" (GB), Miguel Perez "Miguelin", "Pelu", Juan Luis Madariaga "Celes", Pedro Seco "Empalmu", Luis Zorrilla.

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitez mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

[aitormenak]

XABIER SALDIAS > *Egan* taldeko kantaria

“Egiazaleegia izatea da nire akatsa”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat.

Kanta batean uste dut garbi ikusten dela: "Ni naiz gizon arrunt bat, bizitzen dakiena, asmo handirik gabe...". Horixe naiz, bada: pragmatikoa, idealista pixka bat ere bai, eta lanari heltzen diodanean, klasikoa: lehenengo lana eta gero gainerakoa.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Egiazaleegia naizela. Eta arazoei beti adarretik heltzen diedala. Hori akatsa den? Mundu honetan, askotan, ondo ibiltzeko, horren kontrakoa egin behar da.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Haurtzaroz ez naiz batere akordatzen, eta dena oso ona izan zen, e? Hori bai, hamar urte nituela jesuitekin hasi nintzen seminarioan, eta hor hartu nien jesuitei gorrotoa, erlijioari uko egitea...

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Dena ongi egiten dudala. Piropo handiegia beharbada, baina esan zidatenean oso gustura geratu nintzen.

Zein da zure libururik gogokoena?

Oso gutxi irakurtzen dut. Nik liburuak ikasteko bakarrrik erabili ditut, baina besteen bizitzak, nobelak-eta... sekula ez ditut irakurri.

Abestirik gustukoena?

Nik kantu batzuk egin ditut, eta... Beharbada aitari egin nion bat, *Egan Berria* diskoan atera zena.

Eta film bat?

Beti gustatu izan zait Woody Allen, eta beraz, haren edozein, baina bat zehazki ez.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

Zaila da. Pentsamendu bat esango dizut: bizitza bakarra da eta bizitza honetan norberaren idealak eta gorputzak eskatzen dituenak egin behar direla, baina oso zaila da denak uztartzea.

Zerk ematen dizu beldurra?

52 urte dauzkat, hiru seme dauzkat, eta beldur ematen dit nahi nukkeen bezalako heziketa ez ematea.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Gauza handiek ez, egunerokoak baizik. "Hau egin behar dut" esan eta hori lortzea. Horrekin konforme nago ni, egunean egunekoia betetzearekin. m

XABIER SALDIAS— *Egan* taldeagaz hainbeste gau alaitu dituen Xabier Saldias azpeitiarra 1951n jaio zen. Gaur egun Donostian bizi da, eta udarik uda, duela 33 urte hasitako abenturari eusten dio, erromeriaren mundua "gainbehera" dagoela aitortzen duen arren. Aurretik, enpresa-zientziak karrera ikasten hasi zen, baina 19 urteagaz utzi zuen bertan behera, musikaren mundutxoan buru-belari murgiltzeaz batera. Disko sorta eder bat, Euskal Herri osoan zehar eskainitako hamaika kontzertu eta ETBko *Benta Berri* telesailako 100 kapitulu –tartean aktore lanetan ere sartu zitzaigun– dira, momentuz, Xabier Saldiasen uzta.

LITERATURA TAILERRA

GIDARIA LAURA MINTEGI idazlea.

HELBURUAK testuak sortzea.

DATAK urriaren 14etik abenduaren 16ra.

IRAUPENA 20 ordu (2 ordu astean).

ORDUTEGIA martitzenetan (18:00 - 20:00).

LEKUA itxasgane Kulturgunea.

PREZIOA bazkideek 55 euro,
ez bazkideek 75 euro.

izena emateko epea urriaren 10a arte. plaza mugatuak!

Lasuntzailca Euskal Idazleen Elkarteak (EIE)



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultur Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



GETXO
AYUNTAMIENTO DE GETXO

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak
Telefonoa 94 491 43 57
(10etatik 13etara - 16etatik 20etara)

